

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko maiatzaren 21ean

35 ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

- Erroibarreko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1994ko ekitaldiari eta 1995-1996ko inbertsioei dagokiena, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).
- Etxarri Aranazko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldiari dagokiona, Kontuen Ganbarak egina (13. or.).
- Olaztiko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldiari dagokiona, Kontuen Ganbarak egina (25. or.).

G saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Erroibarreko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1994ko ekitaldiari eta 1995-1996ko inbertsioei dagokiena, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak egindako Erroibarreko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1994ko ekitaldiari eta 1995-1996ko inbertsioei dagokiena, argitara dadila agintzea.

Iruña, 1997ko irailaren 2a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Erroibarreko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1994ko ekitaldiari eta 1995-1996ko inbertsioei dagokiena, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Helburua (2. or.).
 - II. Norainokoa eta mugak (3. or.).
 - III. Iritzia (3. or.).
 - IV. Egoera finantzarioak. 1994ko aurrekontuaren betetzea (4. or.).
 - V. Ondorio eta gomendioak (5. or.).
 - VI. 1995 eta 1996ko inbertsioak (10. or.).
- Eranskina.** Pasibo finantzarioen zerrenda (13. or.).

I. HELBURUA.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailearen 2ko 6/90 Foru Legearen eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/84 Foru Legearen arabera, jarduera programari jarraituz Erroibarreko Udalaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa, eta baita 1994ko ekitaldiko gastuen eta dirusarreraren aurrekontuen betetzea ere fiskalizatzeari ekin zaio.

Lana Udalak osoko bilkuran harturiko erabakiak eragin du. Izan ere, bileran Udalak 1994ko abenduaren 31n amaituriko ekitaldia fiskalizatzeko interesa azaldu baitzuen.

1994ko ekitaldiaren fiskalizazioa ezezik, ondorengo bi urteetan eginiko obra batzuen azterketa ere egitea erabaki dugu urte horietan obrek garrantzi handia baitute gastuen aurrekontuan.

Fiskalizaturiko toki entitateari dagokion lege-diaren barruan honako hauek biltzen dira, funtsean: uztailearen 2ko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa; apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoa; 1981eko ekainaren 8ko Araua, toki ogasunak eraberritzeari buruzkoa (TOA), eta hori garatzeko erregelamendua (TOE), 1981eko abenduaren 17koa; orobat, Nafarroako toki erakundeei eskuarki ezar dakiekeen gainerako arauteria.

Txostenaren xedea da gure iritzia ematea hurrengo gaiei buruz:

- a) 1994ko aurrekontuaren garapena eta burutzea.
- b) 1994ko abenduaren 31ko ondare egoera azalaraztea, eskuarki onartzen diren kontabilitate hatsapenen arabera.
- c) Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezotasuna hatsapenen arabera garatzen den ala ez egiaztatzea.

Erroibarreko Udalak 794 biztanle eskubidedun ditu eroldaren arabera eta honako kontzejuok osatzen dute: Aintzinoa, Biskarreta-Gerendiain, Erro, Esnotz, Auritzberri, Lintzoain, Loizu, Mezkitz, Orondritz, Zilbeti eta Ardaitz.

Erroibarreko udalak mendiaren ustiakuntza helburu duen Erregerenako Mankomunitatea osatzen du Baztanekin batera. Ehuneko 70 Erroibarrena da eta gainerakoa baztandarrena. Horren administrazioa bakoitzak urtebetez egiten du txandaka.

II. NORAINIKOAK ETA MUGAK.

Kontuen Ganbarak, bere iharduketa programa-rekin bat, Erroibarreko Udalaren fiskalizazioa burutu du, 1994ko ekitaldiari dagokiona.

Udaleko kontabilitatea aurrekontuaren betetzearen jarraipena egitera mugatzen da (aurrekontu kontabilitatea). Ez da ekitaldi bakoitzaren bukarran udalaren ondare egoera islatzen duen kontabilitate orokorrik ageri.

Dirusarrera eta gastuen kapitulu ekonomiko batzuk aztertu dira. Antolaketa, kontabilitatea eta barne kontroleko alderdiak ere jorratu dira gorabeheren arabera beharrezkotzat jotako frogak eginenez. Horretarako, sektore publikoaren auditoretzan onarturiko hatsapen eta arauak erabili dira.

Lana osatzeko 1995 eta 1996 ekitaldietako langiketa bat egin da. Obren kapituluak ekitaldi horietan gehikuntza handia izan zuen.

Gure lanak izan dituen mugak, funtsean, erabiltako kontabilitate-sistema akastunak eragin ditu.

Udalaren kudeaketa hobetzeko ohar eta gomendioak biltzen dira txostenean. Halaber, pasibo finantzarioen zerrenda erantsi dugu, 1996ko abenduaren 31n eguneratua.

Zelaiko lana 1997ko otsaila eta martxoan egin zen.

Udaleko langileen laguntza eskertu nahi dugu, gure lana burutzea erraztu egin baitute.

III. IRITZIA.

Burururiko fiskalizazioaren esparruan Erroibarreko Udalaren dirusarrera eta gastuen aurrekontuaren betetzearen egoera aztertu dugu, 1994ko ekitaldiari dagokiona, eta 1995 eta 1996ko obra nagusienetarako batzuk ere aztertu ditugu.

Gure azterketan, gorabeheren arabera beharrezkotzat jo ditugun Auditoretzako arau eta prozedurak erabili dira.

Gure azterketaren ondorioz, horra hurrengo iritzia:

III.1. AURREKONTUAREN GARAPENA ETA BETETZEA.

1994ko aurrekontuaren betetzearen egoerak, txostenaren hurrengo ataletan bilduta, Udalak fiskalizaturiko ekitaldian eginiko eragiketen multzoa oro har ongi islatzen badu ere, badira salbuespen batzuk:

- Aurrekontu egozketa batzuk gaizki eginak daude baina, hala ere, udalaren jarduera ekonomikoaren islada ez dute eragin handirik.

- Gastu eta dirusarreraren ohiko aurrekontuan Gizarte Segurantzaren ihardunaldiei dagozkien 3,1 milioi kontabilizatu dira eta saneamendu kanonari dagozkion 2,1 milioi. Horren erregistroa aurrekontuaren balio independente eta laguntzaileetan (ABIL) egin behar da. Bi kontzeptuok gastu eta dirusarreraren aurrekontua gehitu arren bere eragin gordina konpentsatu egiten da.

- Kontuen eskualdaketa bada ere, gastutzat kontabilizaturiko 2,4 milioiko diru sail bat dago.

III.2. ONDARE EGOERAREN AZALPENEA.

Ondare-kontabilitaterik ez dago eta, beraz, ezta egoera balantzerik ere. Hortaz, ezin dugu iritzirik eman Udalak 1994ko abenduaren 31n zuen ondare egoerari buruz. Aipatzekoa da legeak ez duela Udala behartzen ondare kontabilitatea izatera.

III.3. LEGEZKOTASUNA.

III.3.1. Aurrekontuaren betetzea.

Udalaren jarduera, oro har, indarrean dagoen legedia errespetatuz egin da. Hala ere, aurrekontu eta kontu arloetan txostenaren hurrengo ataletan aipatzen diren irregulartasunak antzeman ditugu.

III.3.2. Inbertsioak 1995-1996.

1995 eta 1996ko inbertsioak, oro har, indarrean dagoen legedia errespetatuz egin dira. Dena den, adjudikazio prozesuan txostenaren hurrengo ataletan aipatzen ditugun irregulartasun batzuk antzeman ditugu.

Laburbilduz, eta ondorio nagusi gisa, Erroibarreko Udalaren egoera finantzarioa ona da, baina aurrekontu eta kontu-arloetan baditu arazo batzuk. Horiek konpontzen laguntzea dira txostenean biltzen diren gomendioen helburua.

Udaleko idazkaria eta administralari-laguntzailea Auritz eta Orreagako udaletan ere aritzen dira lanean eta horiek dira udalaren administrazioaz arduratzen diren langile bakarrak.

Udalaren aurrekontua eta Kintoko Mankomunitatearen kudeaketa bi urtean behin egin behar duela kontuan hartuz, Udalak administralari bat kontratatzeke aukera aztertu beharko lukeela uste dugu. Horri esker aurrekontuaren kontrola eta kontuena egokiagoak lirateke.

IV. EGOERA FINANTZARIOAK. 1994KO AURREKONTUAREN BETETZEA.**Gastuak**

	Hasierako aurreikuspenak	Aldaketak	Behin betiko prebisioa	Onartutako betebeharrak	Ordaindutakoa	Ordintzeke	Hasierako aurrekontuaren betetzearen %
A) Ohiko eragiketak							
Langileriaren soldatak	14.710.368	—	—	14.549.920	14.549.920	—	100
Ohiko ondasun eta zerbitzuen erosketak	41.310.130	—	—	21.528.018	21.528.018	—	52
Interesak	0	—	—	0	0	—	—
Ohiko transferentziak	13.747.757	—	—	8.604.535	8.604.535	—	62
B) Kapital eragiketak							
Inbertsio errealak	93.412.895	—	—	6.607.765	6.607.765	—	7
Kapital transferentziak	7.233.259	—	—	15.197.001	15.197.001	—	210
Aktibo finantzarioen aldaketak	0	—	—	3.000.000	3.000.000	—	—
Pasibo finantzarioen aldaketak	374.870	—	—	1.755.244	1.755.244	—	470
Gastuak, guztira	170.789.279			71.242.483	71.242.483	—	41

Dirusarrerak

	Hasierako aurreikuspenak	Aldaketak	Behin betiko prebisioa	Kitaturiko eskubideak	Kobratutakoa	Kobratzeke	Hasierako aurrekontuaren betetzearen %
A) Ohiko eragiketak							
Zerga zuzenak	11.032.485	—	—	10.902.674	10.902.674	—	100
Zeharkako zergak	123.000	—	—	103.424	103.424	—	84
Tasak eta bertze dirusarrerak	52.799.833	—	—	30.303.418	30.303.418	—	57
Ohiko transferentziak	22.107.092	—	—	15.406.030	15.406.030	—	70
Ondarengatiko dirusarrerak	4.000.000	—	—	297.679	297.379	—	7
B) Kapital eragiketak							
Inbertsio errealen besterenganatzea	0	—	—	—	0	—	—
Kapital transferentziak	67.681.144	—	—	20.666.015	20.666.015	—	30,5
Aktibo finantzarioen aldaketa	0	—	—	—	0	—	—
Pasibo finantzarioen aldaketa	0	—	—	—	0	—	—
Dirusarrerak, guztira	157.743.554			77.679.240	77.679.240	—	48

V. ONDORIO ETA GOMENDIOAK.

Ondoren ondorio eta gomendioak azaltzen ditugu, Udalaren barne antolaketa eta barneko kontrol sistema hobetzeko egokitzat jotzen direnak, hartara kudeaketa hobetu ahal izateko.

V.1. AURREKONTUAREN BETETZEAREN INGURUKO IRUZKIN NAGUSIAK.

Iritziari buruzko III. atalean esandakorekin bat etorritik, aurrekontu betetzearen ondoriozko alderdiok azpimarratu nahi ditugu.

- Aurrekontuak oso berandu egiten dira, gehienetan aurreko urteko kontuen kitapenarekin batera. 1994ko aurrekontua 1994ko uztailaren 20an onartu zen.

- 1994ko aurrekontuak gastuen eta dirusararren betetze maila oso murrizta izan zituen (% 41 eta 48 hurrenez hurren). Inbertsioenak eta inbertsioengatikoko dirusarrerena –kapital transferentziak– izan ziren beherakadan eragin nagusia izan zuena. Izan ere 1994an aurreikusitako obra batzuk ezin izan ziren egin Gobernuaren hirurteko planetan sartu ez zirelako.

- Aurreko ekitaldietako erresultak kenduta, 1994ko aurrekontuaren betetzeak 77,6 milioiko onartutako eskubideak ditu; onarturiko betebeharrak 71,2 milioikoak dira. Beraz, aurrekontuaren betetzeak 6,4 milioiko superabita du.

- 1994 eta 1995eko aurrekontuen kitapena bi kitapen partzialetan egin zen. Bata banaketa kontuengatikoko gastu eta dirusarreretakoko eta bertzea aurrekontuaren gainerako kutzako agiri eta ordain aginduetarako. Nolanahi ere, IV. atalean bi kitapenak batera aurkezten ditugu.

- Gastu eta dirusararren erresultak ez daude aurrekontu kitapenetan islaturik eta hasierako aurrekontuari ez zaio aldaketarik egiten.

Aurreko lerroaldeotan errandakoarekin bat, hona gure gomendioak:

- *Aurrekontua legediak finkaturiko epean egin eta onartzea eta baita kitapena ere aurrekontua kontrol eta kudeaketaren tresna izan dadin.*

- *Aurrekontu aldaketak egitea eta aurrekontua zein kitapena behar bezala aurkeztea gastu eta dirusararren erresultak ere erakutsiz.*

- *Aurrekontuaren kitapena agiri bakar batean aurkeztea. Kitapenak Udalaren dirusarrerak eta gastu guztien mugimenduak bildu behar ditu eta, beraz, kutzako agiriak eta ordain-aginduak ez dira bereiztuta kitatu behar.*

V.2. EGOERA EKONOMIKOA 1994KO ABENDUAREN 31N.

Ondoren aurkezten ditugun datuak 1993 eta 1994ko aurrekontu kitapenetatik ateratakoak dira.

Ratio eta magnitudeak	1993 *	1994
Aurrezki gordina (1)	16.240.703	12.650.419
Aurrezki garbia (2)	14.053.042	10.895.175
Zergengatikoko dirusarrerak "per cápita"	38.161	41.629
Inbertsioak "per cápita"	11.655	8.322
Zorpetze maila (3)	2,6	3
Zorpetze muga (4)	19	22

(1) Ohiko dirusarrerak-funtzionamendu gastuak

(2) Ahurrezki gordina-zama finantzarioa (gastuen 3 eta 9 kapituluak)

(3) Zama finantzarioak/ohiko dirusarrerak x 100

(4) Aurrezki gordina/ohiko dirusarrerak x 100

* Ikustatu gabeko ekitaldia

Bilduriko ratioen bidez ikus daitekeenez, Udalaren zorra oso tikia da, aurrezki gordina handia eta aurrezki garbia gordinaren parekoa da zama finantzariorik ez dagoelako. Zorpetze maila, beraz, oso murrizta da.

Aipaturiko egoera finantzarioari esker Udalak gerakin finantzarioak ditu. Gerakinak inbertsio fondo batean ditu Fondo horren saldoa, 1994ko abenduaren 31n, 48,5 milioikoa baita.

Bertzalde, zergengatikoko dirusarrerak "per cápita" edo zerga-zama Nafarroako udal eta kontzejuen 1994ko batezbestekoaren parekoa da.

Diruzaintzako saldoa, 1994ko abenduaren 31n, honakoa da:

	pezetatan
Kontu korrontean dauden fondoak	13.949.890
Banaketa kontuaren saldoa	(182.357)
Fiamm fondoak	48.533.417
Guztira	62.950.950

V.3. KONTU ETA ADMINISTRAZIO PROZEDURAK.

- Azken urteetako dirusarrera eta gastuen kontu liburuak eta ABILen liburuak ere ez daude behar bezala dilijentziaturik. Aurrekontu atal edo diru sail bakoitzaren kontrolerako erabili diren orrialde nagusietan ez dira gastu eta dirusarrerak zehazten eta badira ezabapen eta zuzenketa aunitz. Oro har, liburuok aurrekontu betetzearen jarraipenerako ez direla tresna egokia erran deza-kegu.

- Inprimakien bidez eginiko kontuen kitapena ez da osoa, ez baitira betetzen "hasierako aurrekontua", "aldaketak" eta "behin betiko prebisioa" zutabeak. Ordainketa eta bilketa likidoak dira betetako bakarrik.

- Ekitaldian zehar ez da diruzaintzako aldizkako kontaketa egiten. Kontaketa bakarra ekitaldi amaierakoa da.

- 1992tik 1996ra bitarteko ekitaldietan kontu korrontearen kontu laburpenak ez dira udaletxean gordetzen bankuan baizik.

- Agente beterazlearen kitapenen aldizkako ez jarraipenik ez kontabilizaziorik ez dago, eta udalaren dirusarreraren erregistroa garbiaren arabera egiten da, gastuak kenduta.

- Dirusarrera eta gastuak kapituluetan sailkatzera, irizpide ezberdinak erabiltzen dira azterturiko ekitaldietan; horrek zaildu egiten du azterketa konparatiboa.

- Azken urteetan Udalak aurrekontuaren aurkezpena eta berrorren kitapena egiteko kanpoko laguntza eskatu du. 1996ko udatik zerbitzu osoa kontratatatu da.

Gure iritziz, kontu eta aurrekontuen burutzea, kontuen jarraipena, jarraipen ekonomikoa eta hila-beteko kontaketa udalari dagokio, eta ez luke kanpoko teknikoaren esku utzi behar. Udalak, bere balia bidez egin beharko lukeela uste dugu.

Aurreko lerroaldeotan esandakoarekin bat, hona gure gomendioak:

- *Aurrekontuaren kitapen eta aurkezpenetarako kontu-liburuak eta inprimakiak behar bezala erabiltzea. Halaber, aldizkako kutxa kontaketa egitea.*

- *Kontu korrontearen kontu-laburpenak udaletxean berean behar bezala artxibatzea.*

- *Agente beterazlearen kitapenen jarraipen eta aldizkako kontabilizazioa egitea, dirusarrera eta agenteari dagokion ordainketa zehaztuz eta ez gordinaren arabera kontabilizatuz.*

- *Jarduera ekonomikoak dagozkien dirusarrera eta gastuen ataletan erregistratzea, egozpen irizpidea aldatu gabe.*

V.4. INTERESEKO ZENBAIT ALOR.

V.4.1. Langileriaren soldatak.

Langileriaren gastuetan onarturiko betebeharrak 14,5 milioioak dira, gastuen aurrekontuan onarturiko betebeharren ehuneko 20,4.

Gastuen xehetasunak dagozkien artikuluko ekonomikoen arabera eskaintzen ditugu:

Artikulua	Kontzeptua	Onarturiko betebeharrak (pezetatan)
12	Ordainketa osagarriak	29.894
16	Lan kontratupeko langileria	8.615.719
17	Langile kontratatuta	817.210
18	Gizarte aseguruak	2.059.774
19	Pasiboak	3.027.323
Guztira		14.549.920

"Kontratututako langileria" kontzeptuaren barruan dagoen 150.000 pezetako egozketa bat Kintoko Mankomunitatearen gastuen kudeaketari dagokio, eta zenbateko bera dirusarreretan ere badago. Gastuok balio independenteen kontuetan egotzi beharrekoak dira.

Gainera, kontzeptu honetan dagoen gastuaren ehuneko 50ren bat fakturen ordainketei dagokie eta, beraz, ohiko gastuetan sartu beharrekoak ziren "erosketatzat".

Idazkariaren soldata "lan kontratupeko langileria" kontzeptuari egozten zaio eta funtzionarioa denez ez litzateke horrela egin behar.

Guk dakigunez, 1994ko plantila organikoa ez da onartu. 1995ekoa 1995eko ekainaren 6an onartu zen. Honakoa da:

Langileria	Zenbat	Maila	Osagarriak	Izena
Funtzionarioak	1	A	20 y 5 %	Idazkaria
Lan kontratupeko finkoak	2	D y E	12 %	Laguntz. administratiboak eta zerbitzu orokorretakoak
Aldi baterako lan kontratupekoa	1	D	12 %	Garbiketako langilea

Udaletxean ez dago langile bakoitzari buruzko espedienterik.

Nominak kanpoko aholkularitza-enpresa batek egiten ditu eta, hilerio, Udalak kontabilitate-oharriak burutzen ditu. Dena den, ABIL-en PFEZ-en kenketak bertzerik ez dira erregistratzen eta ez gizarte segurantzarenak.

Artxiboak ez daude behar bezala antolaturik. Guk nominen kontrolerako eginiko saioan arazo hori frogatu ahal izan dugu ezin izan baititugu aurkitu ez gizarte segurantzaren matrikula liburua eta ezta hilabeteko kotizazioen tc1 inprimakia.

Erroibarreko Udalak Auritz eta Orreagakoekin batera udal elkarte osatzen du eta guztiek idazkari bera dute. 1994an Erroibarrek idazkariaren soldataren ehuneko 60 ordaindu zuen.

Soldataz gain, Erroibarreko Udalak aparteko orduengatiko 832.300 pezeta ordaindu zizkion idazkariari.

Erroibarreko Udalak idazkariari hilero ordaintzen dio soldata, dagozkion kenketak eta atxikipe-nak egin gabe, azken hau Auritzeko Udalak egiten baitizkio. Hala ere, Erroibarreko Udalak ordaindu-riko aparteko orduengatiko ordainsariei ere etzaie atxikipe-nak egiten.

Aurreko lerroaldeotan esandakoarekin bat, hona hemen gure gomendioak:

- *Kontabilizazio egokiagoa egitea, gastuen iza-
era eta dagozkion kapituluak kontuan hartuz.*

- *Ekitaldi bakoitzean plantila organikoa onartu
eta Udaleko langile bakoitzari buruzko espedien-
tea izatea.*

- *Aurrekontu balio independente eta laguntzai-
leetan PFEZaren kenketak zein gizarte seguran-
tzarenak sartzea.*

- *Langileriaren gastuei dagozkion oinarrizko
dokumentazio osoa behar bezala artxibatzea.*

- *Erroibarreko Udalak idazkariari ordaintzen
dizkion aparteko orduengatiko kenketak eta atxiki-
penak egitea eta funtzionarioari ordaindu beharre-
ko ordu horien berri idatzita uztea eta prezioa
urteko plantila organikoa onartzean finkatzea.*

V.4.2 Ohiko ondasun eta zerbitzuen gastuak.

Erosketa eta zerbitzuen gastuak 21,5 milioikoak dira; onartu gabeko betebeharren ehuneko 30,2:

Kontzeptua	Zenbatekoa (pezetatan)
Bulego gastuak	3.696.924
Ohiko mantenimendu eta konponketak	290.614
Garbiketa, ura, etab.	988.171
Gizarte Segurantzaren, Nekazaritza	3.302.919
Garraio zerbitzua	204.990
Komunikazioak	13.500
Dietak, bidaiak	791.980
Material tekniko eta berezia	1.155.331
Gasoiak	223.605
Aholkularitza eta ikerketa teknikoak	1.778.272
Festetako gastuak	5.648.579
Makineria eta instalazioen mantenimendua	344.186
Bertze inbertsioen mantenimendua	3.047.234
Ustegabekoak	41.713
Guztira	21.528.018

Gainerako kapituluetan bezala, banaketa kon-tuari dagozkion gastuak, Udalak bereiztuta aur-keztuta, hemen sartu dira.

Prozedurak eta kontabilizaturiko zenbatekoak aztertuta, hona hemen ondorioak:

- Turismo-liburuxka batean gastaturiko 2,4 milioi bulegoko gastutzat erregistratzen dira. Ego-kiagoa litzateke "material tekniko berezia" kapitu-luan erregistratzea.

- Higiezinaren gastuetan sarturiko 426.341 peze-tako gastua argindarrari dagokio eta bertze 306.125 pezetakoa hitzaldi batzuei. Azken hauek ekitaldi amaieran biltzen dira anotazio babakar batean baina ordain-agirian ez da erreziborik aur-kezten. Gauza bera gertatzen da gasoilaren gas-tuarekin. Kasu honetan zenbatekoa 215.325 pezeta da.

- Gastuetan ikusi dugun bezala, "Nekazaritza arloko Gizarte Segurantzari buruzko jardunaldi tek-niko"ei dagozkien 3,1 milioiko gastua dago, dirusa-rreteran ere sarturik dagoena.

Kontzeptua hau balio independente eta lagun-tzailetzat erregistratu behar zen gastu eta dirusa-rreteran kapituluak handitu gabe.

Aurreko lerroaldeotan esandakoarekin bat, hona gure gomendioak:

- *"Erosketak" kapituluaren gastuen kontzep-
tuak dagozkien epigrafeetan kontabilizatzea.*

- *Ordain-agiri guztiekin batera eginikio gastuak
justifikatzen dituen ordainagiria aurkeztea.*

- *Gizarte Segurantzaren jardunaldi teknikoak
balio independente eta laguntzaileetan kontabili-
zatzea.*

V.4.3. Ohiko transferentziak.

Gastuen kapitulu honetan onarturiko betebe-harrak 8,6 milioikoak dira, onarturiko betebeh-ar guztien ehuneko 12. Hona horri buruzko azalpe-na:

Transferentzien Kontzeptua	Zenbatekoa (pezetatan)
Lurraldeko erakundeei	3.763.669
Merkataritza enpreseei	1.659.726
Irabazi gabeko asmorik erakundeei	562.735
Familiei	2.618.405
Guztira	8.604.535

Kontzeptuaren barruan sartutako kontu sail nagusiak honakoak dira:

	Milioitan
Auñamendi Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari	1,9
Saneamendu kanona	1,6
Ikasleendako dirulaguntzak 93-94	2,3
Guztira	5,8

Aipatu kontzeptuak kapitularen ehuneko 68 dira.

Prozedurak eta kontabilizaturiko zenbatekoak aztertuta, 40.000 pezetatik gorako gastuek udal osoko bilkurak onartzen dituela frogatu du. Bada salbuespen bat, horietako gastu bat alkatearen ebazpenak onartzen baitu, baina kasu horretan ere ordainketa justifikatzeko agiri guztiak aurkezten dira.

93-94 ikasturteko laguntzei dagokienez (2,3 milioi pezeta), Udalak ibarreko ikasleei, egiten dituzten ikasketen arabera, dirulaguntzak ematen dizkiela aipatu behar da.

V.4.4. Inbertsio errealak.

Arlo honetan onarturiko betebeharrak 6,6 milioioak dira, gastuen aurrekontuan onarturiko betebeharren ehuneko 9. Hona horri buruzko azalpena:

Kontzeptua	Zenbatekoa (pezetatan)
Arau subsidiarioak	3.220.000
Loitzuko ur proiektua	1.995.000
Barrila kanadiarra eraikitzea Aztakarri-Sorogainen	1.392.000
Guztira	6.607.765

Prozedurak eta kontabilizaturiko zenbatekoak aztertuta, gure konklusioa da inbertsioak indarrean dagoen legedia errespetatuz egin direla, espediente eta gastua justifikatzen dituen agiriak egokiak baitira.

V.4.5. Kapital transferentziak.

Kapitulu honetako onarturiko betebeharrak 15,2 milioioak dira, gastuen aurrekontuan onarturiko guztiaren ehuneko 21. Hona horren azalpena:

Kontzeptua	Zenbatekoa (pezetatan)
Transferentziak Nafarroako Gobernura	1.050.545
Dirulaguntza kontzejuen funtzionamendurako	2.804.048
Erroko kontzejuko obretarako dirulaguntza	7.233.259
Esnotzeko obra planerako dirulaguntza	184.548
Aintzioako obra planerako dirulaguntza	1.542.549
Banaketa kontuen saldoa	2.381.582 (1)
Guztira	15.197.001

(1) Kontu korrentera pasatutako banaketa kontuaren saldoaren kontabilizazioari dagokio. Hurrengo ekitaldian dirusarreratzat kontabilizatzen da. Kontzeptu hau ez litzateke gastuen artean sartu behar.

Lehenengo kontzeptua akats bat zela eta bitan jasotako BEZaren itzulketaren zenbatekoari dagokio.

Bigarrena Udalak kontzejuei ur-bideak konponitzeko eman zien dirulaguntzari dagokio.

Erroko kontzejuari emaniko dirulaguntza Nafarroako Gobernutik dator eta Udalaren kontuetan ere bada zenbateko bera duen dirusarrera bat.

Kontzejuen obra planetarako dirulaguntzak Udal osoko bilkuran onartzen dira eta kontzejuek aurkezturiko proiektuen materialen zati bat finantzatzeko erabiltzen dira.

V.4.6. Aktibo finantzarioen aldaketa.

Udalak gerakin finantzarioak inbertsio fondo batean ditu 1992tik.

Horretarako, fondoan eginiko eragiketen saldo garbia aktibo finantzarioen aldaketetan sartzen du, saldo hori gastu edo dirusarreratzat kontabilizatuz.

Azken urteotako eragiketak honakoak izan dira:

Urtea	Harpidetza	Itzulketa	Kontabili- zatutako garbia	Pilatutako zenbatekoa	Fondo- egungo balioa	Urteko etekina	Pilatutako etekina	Kontabili- zatutako etekinak
1992	12.500.000	9.000.000	3.500.000	3.500.000	4.364.362	864.362	864.362	—
1993	49.765.000	15.350.000	34.415.000	37.915.000	42.440.785	3.661.423	4.525.785	—
1994	25.000.000	22.000.000	3.000.000	40.915.000	48.533.419	3.092.634	7.618.419	—
1995	35.000.000	39.000.000	(4.000.000)	36.915.000	48.495.396	3.961.977	11.580.396	—
1996	38.000.000	38.000.000	0	36.915.000	50.981.412	2.486.016	14.066.412	2.486.016

Etekinak edo balio ugaltzen ez dira kontabilizatu 1996ko ekitaldian izan ezik. Urte horretan, fondo-egungoak eta itzulketak berdina izanik, fondo-egungo balio ugaltzen ondare-dirusarreratzen kontabilizatu erabaki zuten (dirusarreren 5. kapituluak).

Koadroan ikus dezakegunez, fondo-egungo balioa 48,5 milioikoa zen 1994ko abenduaren 31n eta 50,9 milioikoa 1996ko abenduaren 31n.

V.4.7. Pasibo finantzarioen aldaketa.

Kontabilizaturiko zenbatekoa (1,7 milioi) Nafarroako Gobernuak katrastoa egiteko eman zuen aurrerakinaren amortizazioari (1,3 milioi) eta larren hobekuntzari (0,4 milioi) dagokie.

Bi kontzeptuok banaketa kontuan biltzen dira.

V.4.8. Zuzeneko zergak.

1994an kitatutako zuzeneko zerga guztien zenbatekoa 10.902.674 pezetakoa da:

Kontzeptua	Errolden zenbatekoa	Bildutakoa (1)	Kobratzeke
Abereengatikoa	1.216.487	1.216.243	244
Lizentzia fiskala	2.072.058	2.050.945	31.615
Hiri kontribuzioa	6.956.761	6.668.175	318.744
Landa lurren kontribuzioa	977.035	967.311	10.738
Guztira	11.222.341	10.902.674	360.981

(1) 39.882 pezetako errekaruak biltzen dira.

Zuzeneko zergak 1994an kitatutako dirusarreren ehuneko 14,3 dira. Helbideratutako kobratzen portzentaia ehuneko 65 da.

Dirusarreren arloan eginiko azterketaren ondorioz, hona gure gomendioak:

- *Bildutako errekaruaren kontabilizazioa "luzamendu eta premiaren errekarua" izenekoan egitea.*

- *Zerga bakoitzari dagokion laburpen-orria egitea. Orriak ondokoak bildu behar ditu: onartutakoa, bajak edo ezabapenak, nagusiaren bilketa, zordunak eta luzamendurako errekaruak.*

- *Dirusarreren erresulter dagozkien dirusarrera, aurreko ekitaldietakoak, "itxitako ekitaldietako erresultak" izenekokari egozteak.*

V.4.9. Tasak eta bertze dirusarrera.

Kapitulua bildu eta kitatutako 30,3 milioiko dirusarrera dituzte, guztiaren ehuneko 39.

Dirusarrera horrela banatzen ahal ditugu:

Kontzeptua	Zenbatekoa (pezetatan)
1993ko ur tasa	503.880
1994ko ur tasa	2.426.620
1993ko saneamendu kanona	367.496
1994ko saneamendu kanona	1.769.756
Itzulketak	5.603.200
Komunalen probetxamendua	18.640.878
Gainerakoak	991.558
Guztira	30.303.418

Dirusarreren arloan eginiko azterketaren ondorioz, hona hemen gure ondorioak:

- *Ur tasa bildu eta kudeatzeko eskumena kontzejuen esku uzteko akordioa 1993ko azaroaren 13an onartu zuen Udalak osoko bilkuran. Kontzeju batzuetan kontagailurik ez dagoenez, etxebizitza bakoitzari zenbateko finkoa aplikatzen zaio.*

- *Saneamendu kanonari dagokionez, bai bilketa nola ordainketa (Nilsari eginikoa) aurrekontu arruntan kontabilizatu dira eta ez litzateke horretan egin behar ABIL-etan baizik.*

Aurreko lerroaldeetan bilduriko ondorioak kontuan hartuz, hona gure gomendioak:

- *Kontzejuetan ur kontagailuak jartzeko ahalgintza egitea fakturazioa kontsumitutako uraren (m³) arabera izan dadin.*

- *Saneamendu kanona behar bezala kontabilizatu eta ur tasari dagokion BEZa; erresulter kontuak kobratzeke daudenak biltzeko erabili behar da.*

• *Urtero, ekitaldiari dagozkion dirusarreraren kitapena egitea; kobratzeke daudenak biltzeko erresulten kontuak erabili behar da.*

V.4.10. Ohiko transferentziengatiko dirusarrerak.

Dirusarrerak 15,4 milioikoak dira, ekitaldiko dirusarrera guztien ehuneko 19,7. Dirusarrera hauek honakoak dira:

Kontzeptua	Zenbatekoa (pezetatan)
Estatuaren zergak	1.374.726
Toki Ogasunaren fondoa	4.938.371
Funtzionarioen montepio	976.896
Herrietako kontsultategiak	1.035.537
Kintoko Mankomunitatearen dirusarrerak	7.000.000
Haur-antzerkirako dirulaguntza	80.500
Guztira	15.406.030

Arlo honetan eginiko azterketaren ondorioz, transferentziak egozteko irizpide homogeneorik ez dagoela frogatu dugu eta horrek ekitaldietako aurrekontu betetzeak aztertzea zaildu egiten du. Hortaz gure gomendia da:

Transferentziengatiko dirusarreraren kontzeptuak egozterakoan irizpide finkoa zehaztea, ekitaldi ezberdinetako aurrekontu betetzeen azterketa errazagoa izan dadin.

V.4.11. Ondare dirusarrerak.

Honako dirusarrera hauek daude bildurik:

Kontzeptua	Zenbatekoa (pezetatan)
Tabernaren errentamendua (lehiaketa)	30.000
Banaketa kontuaren korrituak	90.199
Bankuetako kontu korrenteen korrituak	177.480
Guztira	297.679

Azken kontzeptuak Udalak Rural Kutxan dituen kontu korrontearen korrituak biltzen ditu. Dirusarrera honen kontabilizazioa ez zen egokia ABIL-en zegoelako, baina ekitaldi amaieran ondare dirusarreratzat sailkatu dute.

V.4.12. Kapital transferentziengatiko dirusarrerak.

20,6 milioiko zenbatekoa biltzen du, dirusarrera guztien ehuneko 26,4. Hona horri buruzko azalpena:

Kontzeptua	Zenbatekoa (pezetatan)
Nekazaritzak larreak hobetzeko emaniko dirulaguntzaren kitapena	1.059.100
Kultur ekitaldietarako dirulaguntzak	4.141.878
Hirigintza planerako dirulaguntza	3.402.400
Nilsaren dirulaguntza Esnotz eta Olondritzeko kolektoretarako	3.787.822
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza Erroko hornikuntza obretarako (kitapena)	7.233.259
Banaketa kontuaren saldo zorduna (BEZaren itzulketa)	1.041.556
Guztira	20.666.015

Arlo honetan eginiko lanaren arabera, ez dugu deus berezirik aipatu behar. Bada, hala ere gaizki erregistraturiko 4,1 milioiko dirutza. Izan ere, kultur ekitaldietarako dirulaguntzak izanik, kapital transferentziatzat erregistratu beharrean ohiko transferentziatzat erregistratu beharko lirateke.

VI. 1995 ETA 1996KO INBERTSIOAK.

1995eko inbertsioak

Lan batzuk (9 ordain-agindu)	327.591
Larren hobekuntza	5.649.200
Kontzejuen obretarako dirulaguntzak	12.521.434
NSCP-ren erredakziorako ordainketa	1.624.000
Hornikuntza eta saneamendu proiektu batzuen zerbitzu-sariak (13 ordain-agindu)	9.370.142
Saneamendu eta hornikuntza obra batzuk (19 ordain-agindu)	61.608.632
Baso etxea (proiektu, aurreproiektu) (2 ordain-agindu)	924.848
Udaletxea (zerbitzu-sariak) (2 ordain-agindu)	939.194
Bertze inbertsio batzuk (23 ordain-agindu)	1.578.501
Guztira	94.543.542

1996ko inbertsioak (*)

Ardaitzeko hornikuntza. Zerbitzu-sariak	862.811
Ardaitzeko hornikuntza. Afekzioak	450.287
Ardaitzeko hornikuntza. Obrak	11.664.954
Lasturreko hornikuntza. Zerbitzu-sariak	2.417.899
Lasturreko hornikuntza. Afekzioak	2.794.569
Lasturreko hornikuntza. Obrak	38.804.765
Loitzuko hornikuntza obrak. Zerbitzu-sariak	1.884.765

Loitzuko hornikuntza obrak. Afekzioak	1.807.387
Loitzuko hornikuntza obrak. Lurzatiaren erosketa	74.992
Loitzuko hornikuntza obrak. Burutzea	35.359.543
Alegiko errepikagailua. Zerbitzu-sariak	10.000
Esnotzeko kolektorearen afekzioak. Ordainketa	63.920
Olondritzeko kolektorearen afekzioak. Ordainketa	156.260
Biskarretako hornikuntzaren afekzioak	560.053
Aintzioako hornikuntzaren afekzioak	84.663
Aparkalekuaren proiektua	1.500
Aparkalekuaren obrak	2.736.721
Laurentxiko bideen obrak	250.000
Uretako bidearen proiektua. Zerbitzu-sariak	60.000
Aztakarriko bidearen proiektua. Zerbitzu-sariak	80.000
Itolegiko bidearen proiektua. Zerbitzu-sariak	80.000
Sorogaineko bidearen proiektua (2.fasea). Zerbitzu-sariak	40.000
Udaletxeko obrak.	11.692.282
Udaletxeko obrak. Zerbitzu-sariak	1.624.364
Sorogaineko etxea. Zerbitzu-sariak	876.548
Guztira	114.438.283

(*) Iturria: 1995 eta 1996ko kontuen kitapena (ikuskatu gabeko ekitaldiak)

VI.1. 1995 ETA 1996KO INBERTSIOEN AZTERKETA ETA ONDORIOAK.

1995eko ekitaldiak inbertsioak 94,5 milioikoak izan ziren eta 1996an 114,4 milioikoak. Obren espedienteak bildu eta horietako batzuk sakonago aztertutako osoko bilkuren aktak eta idazkariaren txostenak oinarritzat hartuz.

VI.1.1. Udaletxeko obrak.

Obra hau 1995eko urrian adjudikatu zen 12 milioitan adjudikazio zuzenaren bidez. Obraren kostuak, funtsean, 1996ko ekitaldian du eragina.

Idazkariak, lehenengo ordain-agiria jasotzean, ohar bat idatzi zuen adjudikazio zuzena legekontrakoa zela erranez. Haren ustez, horren arrazoiak bikoitza zen: obraren zenbatekoa eta espedienteak aipatzen duen premia justifikatu ez izana.

Gure azterketaren arabera, Udalak eskaera bat egin zion Gobernuari obra hau premiazkatat

har zezan 1993-1995 hirurteko planean sartu ahal izateko eta Gobernuak eskaria onartu egin zuen.

Dena den, Udalaren hasierako eskaera 1994ko ekainean egin zen eta adjudikazioa 1995eko urrian. Hortaz, premia justifikatzeko arrazoiak ez daude garbi.

Aipatzekoa da adjudikazioa zuzenean egina-gatik eskaintzarik merkeenari egin zitzaioela bertako hiru kontratistari hiru eskaintza eskatu eta gero.

VI.1.2. Hornikuntza obrak Erro, Orondritz, Loitzu eta Aintzioa Loitzuko iturburutik. 1. fasea.

Obra hau 1993-1995 toki azpiegituren hirurteko planean sartu zen. Aurreikusitako inbertsioa, 1995ean egin beharrekoa, 66.550.000 milioikoa zen.

Proiektuen erredakzioa eta obraren zuzendaritza kontratazio zuzenaren bidez adjudikatu ziren (lau teknikori gutun bana bidali ondoren), eskaintzarik merkeena aukeratuz. Adjudikazioa 1994ko maiatzaren 20an onartu zen. Zenbatekoak honakoak dira:

Kontzeptua	Zenbatekoa (pezetatan)
Proiektuaren erredakzioa	2.660.000
Obra-zuzendaritza	1.580.000

Obren adjudikazioa enkantean egin zen, osoko bilkurak 1995eko maiatzaren 29an onarturiko baldintza-orrian oinarrituz. Licitazioaren oinarritzko prezioa 67,2 milioitan finkatu zen, eta adjudikazioa eskaintza merkeenari eman zitzaion 55,7 milioitan. Beherapena, beraz, ehuneko 17,1 izan zen.

Kontratua 1995eko uztailaren 4an sinatu zen eta 8 hilabeteko epea finkatu zen obra burutzeko.

Obrak egiten ziren bitartean, aldaketak onartu eta horrek aurrekontua 9,2 milioitan handitzea eragin zuen -zerbitzu sariak barne- eta betetze epea ere zortzi hilabetetik hamabira handitzea erabaki zen. Hortaz, 1996ko uztailaren 5ean obra bukatu behar zen.

1997ko maiatzean, ordea, obra bukatu gabe zegoen. Hala ere, ez da epea luzatzeko erabakirik hartu eta ez dirudi Udala kontratuak zehazturiko isuna aplikatzeko prest dagoenik.

1995eko ekitaldian 13,1 milioi gastatu dira obra honetan -zerbitzu sariak barne- eta 38,7 milioi 1996ko ekitaldian.

VI.1.3. Lastur eta Ardaitzeko altako hornikuntza.

Obra hau Udal obra batzordeak adjudikatu zuen 1995eko abenduaren 27an lau eskaintza eskatu eta gero. Adjudikazioa eskaintza merkeenari eman zitzaion 55.524.148 pezetatan.

Adjudikazioa idazkari postuan titularraren ordezkora zegoelarik egin zen. Idazkari titularrak 1996ko maiatzaren 15ean ohar bat aurkeztu zuen adjudikazio sistemaren aurka. (zuzeneko adjudikazioa)

Handik egun batzutura alkateak osoko bilkuran azaldu zuen obren premiaren arrazoia obrak 1995ean hasi beharra zela. Izan ere, hori zen Diputazioaren dirulaguntzak jasotzeko ezinbesteko baldintza.

Aurreko lerroaldeotan azaldutakoaren arabera, 1995 eta 1996ko obrei buruzko ondorioak honakoak dira:

- Idazkari-kontuhartzailearen oharrak egokiak dira erabilitako prozedurak indarrean dagoen legedira egokitzea baitute helburu.

- Nolanahi ere, justifikatu gabeko premian oinarritutako zuzeneko adjudikazioak zonako kontratistari eskaintzak eskatu eta gero egiten dira, adjudikazioa eskaintza merkeenari emanez.

Kontratuen Foru Legea eta kontratazio publikoa arautzen duen gainerako legedia betetzea eskatzen dugu, bereziki adjudikazio prozedurei dagokienez

Iruñean 1997ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Francisco Javier Tuñón San Martín

ERANSKINA. 1994ko ABENDUAREN 31ko PASIBO FINANTZARIOEN ZERRENDA.

	Hasierako zenbatekoa	Kontzesioaren data	Urte muga	Urteko amortizazioa	Zor bizia 94-12-31n	Zor bizia 95-12-31n	Zor bizia 96-12-31n
Artakaineko larreak. Nafarroako Gobernuaren aurrerakina	2.443.886	1984	1998	162.926	651.704	488.778	325.852
Sorogaineko larreak. Nafarroako Gobernuaren aurrerakina	2.734.200	1988	2007	136.710	1.777.230	1.640.520	1.503.810
Measkoitzeko larreak. Nafarroako Gobernuaren aurrerakina	1.504.692	1990	2009	75.234	1.354.212	1.278.978	1.203.744
Landalurren katastroa. Nafarroako Gobernuaren ordainketa	4.141.123	1992	1995	1.380.374	1.380.374	0	0
Guztira				1.755.244	5.155.520	3.408.276	3.033.406

Etxarri Aranazko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldiari dagokiona, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 22an eginiko bilkuran, Kontuen Ganbarak egindako Etxarri Aranazko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldiari dagokiona, argitaratu dadila agintzea erabaki zuen.

Iruña, 1997ko urriaren 23a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteuguía

Etxarri Aranazko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldiari dagokiona, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (13. or.).
- II. Helburua (13. or.).
- III. Norainokoak eta mugak (14. or.).
- IV. Iritzia (14. or.).
 - IV.1. Etxarri Aranazko Udala (14. or.).
 - IV.2. Udalaren Musika eskolaren patronatua (15. or.).
- V. Egoera finantzarioak (15. or.).
- VI. Ondorio eta gomendioak (17. or.).
 - VI.1. Aurrekontuaren betetzeari buruzko iruzkinak (17. or.).
 - VI.2. Konpromisoak eta bestelako gorabeherak (17. or.).

VI.3. Egoera ekonomikoa 1996ko abenduaren 31n (17. or.).

VI.4. Erakunde autonomoa (18. or.).

VI.5. Iruzkina orokorrak (18. or.).

VI.6. Intereseko beste gai batzuk (19. or.).

Eranskina. Organigrama (24. or.).

I. SARRERA.

Etxarri Aranatz Iruñeko merinaldeko udalerria da, Sakanan kokatuta dagoena. 1996ko abenduaren 31ko erroldaren arabera, 2.375 biztanle esku-bidedun ditu.

Etxarri Aranazko Udalak patronatu batean parte hartzen du (Etxarri Aranazko Udalaren Musika Eskola) eta hiri hondakinen bilketa eta tratamenduz arduratzen den Sakanako Mankomunitatean dago sarturik. Halaber, Oinarrizko Gizarte Zer-bitzuen Mankomunitateko kide da eta Garalur elkartearen ere ordezkaturik dago. Azken elkarte horrek Nafarroako herrien garapen ekonomikoa bultzatzea du helburu.

II. HELBURUA.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/90 Foru Legearen eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/84 Foru Legearen arabera, Ganbararen jardura planari jarraituz, Etxarri Aranazko Udalaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta 1996ko gastu eta

dirusarreraren aurrekontuaren betetzea fiskalizatze-ari ekin zaio.

Azterturiko udal erakundeari ezar dakioken legediaren barruan honakoak biltzen dira funtsean: martxoaren 10eko 2/95 Foru Legea, toki ogasunak arautzen dituena; uztailaren 2ko 6/90 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa; apirilaren 2ko 7/1985 Legea, toki erregimenaren oinarriak arautzekoa; 1981eko ekainaren 8ko araua, toki ogasunak eraberritzeari buruzkoa eta hori garatzeko erregelamendua, 1981eko abenduaren 17koa; orobat, Nafarroako toki erakundeei eskuarki ezar dakikeen gainerako arauteria.

Txostenaren xedea da gure iritzia ematea hurrengo gaiei buruz:

- a) Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 1996ko aurrekontuaren garapena eta burutzea.
- b) 1996ko abenduaren 31ko ondare egoera, eskuarki onartzen diren kontabilitate hatsapenen arabera.
- c) Udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa legezketasun-hatsapenen arabera garatzen den.
- d) Erakundearen egoera finantzarioa 1996ko abenduaren 31n.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK.

Txostenean dirusarrera eta gastuen ekonomi kapitulu nagusiak aztertu dira. Antolaketa, kontabilitatea eta barne kontroleko alderdi batzuk ere jorratu dira, beharrezkotzat jotako frogak eginez, beti ere aintzat hartuta Udalari bidalitako galdetegiak agerian jartzen zituen arazoak. Horretarako Espainiako Estatuko kanpo kontrolerako organoen Koordinazio Batzordeak sektore publikorako ezarritako auditoretza printzipio eta arauak aplikatu dira.

Erakunde autonomoaren kontuak Etxarri Aranazko Udal Musika Patronatua) ez dira udalaren kontuetan sartzen. Haren aurrekontuaren kitapenaren egoerak 1995-1996 ikastaroarekin bat egiten du. Gure lana aipatu aurrekontua egiaztatzerako mugatu da.

Gure lanak izan dituen mugak honakoaren ondorio dira:

- Udalaren kontabilitatea aurrekontuaren jarraipena egitera mugatzen da (aurrekontu kontabilitatea) eta, beraz, ez dago kontabilitate orokorrik. Horretaz gain, Udalak ez du ekitaldi amaierako

ondare egoera islatzen duen ondasun zerrenda gaurkoturik.

- Musika Udal Patronatuak ez du aurrekontuaren kitapenarik aurkeztu eta, hortaz, ezin da erakundearen gastu eta dirusarreraren azterketarik egin.

Udalaren kontu eta administrazio prozedurak hobetzeko egoitzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak bildu ditugu.

Zelaiko lana 1997ko ekainean egin zen.

Etxarri Aranazko Udaleko langile guztien laguntza eskertu nahi dugu, gure lana burutzea erraztu egin baitute.

IV. IRITZIA.

Buruturiko fiskalizazioaren esparruan Etxarri Aranazko Udalaren gastu eta dirusarreraren bete-zearen egoera aztertu dugu, 1996ko ekitaldiari dagokiona.

Gure azterketan, Espainiako Estatuko kanpoko kontrolerako organo publikoen koordinazio batzordeak sektore publikorako ezarritako auditoretza arau eta prozedurak.

Gorabeheren arabera beharrezkotzat jotako ikuspen-arau eta prozedurak erabili digugu gure azterketan.

Azterketaren ondorioz, horra gure iritzia:

IV.1. ETXARRI ARANAZKO UDALA.

IV.1.1. Aurrekontuaren kitapena.

Gure iritiz, 1996ko aurrekontuaren kitapenak ekitaldiko aurrekontu emaitza, kobratzeke dauden eskubideak, ordaintzeke dauden betebeharrak eta Etxarri Aranazko Udalak 1996ko abenduaren 31n zuen diruzaintzako gerakina egoki islatzen ditu alderdi nagusietan eta hori dena indarrean dagoen legediaren arabera egin da. Hala ere, badira salbuespen batzuk:

- Aurrekontuaren kitapenak ekitaldiko dirusarrera eta gastutzat islatzen ditu aurreko urteetako kobratu eta pagatu gabeko erresultak (81,8 eta 30,6 milioi, hurrenez hurren). 1996ko abenduaren 31n aurreko urteei zegozkien kobratu gabeko erresultak 24,1 milioikoak ziren. Dirutza horietatik 15 milioi nekez kobratuko direla dirudi.

- Ekitaldiko aurrekontuaren emaitzarik ez da aurkeztu. Hortaz, ez da finanziaioaren desbiderapen positibo eta negatiboen berri ematen eta ezta aurreko ekitaldietako gerakinaz finantziatutako gastuen berri ere.

- Inbertsio errealengatiko 51 milioiko gastua, 1996an eginiko obren ziurtagiriei dagozkiona, ez da erregistratu. Halaber, 1996ko abenduaren 31n kobratzeke zegoen 36,9 milioiko dirulaguntzari dagokion dirusarrera, aipatu obren ziurtagiriei lotuta, ez da erregistratu.

- Ur-hornikuntza eta ohian-probetxamenduari ezarritako kanonaren fidantzarekin zerikusia duten 7 milioi ez dira dirusarreratzat islatu.

- Bankuetxe batean Udalak duen kreditu-kontu baten zenbatekoa 15,7 milioitan gehitu da 1996ko ekitaldian. Aurrekontuaren kitapenean horren ondoriozko dirusarrera erregistratu beharrean kredituaren murrizketari dagokion 10 milioiko gastua islatu da.

IV.1.2. Ondare egoeraren isla.

Ondare kontabilitaterik ez dago eta, beraz, egoera-balantzerik ere ez. Horrek Udalaren 1996ko abenduaren 31ko ondare egoeari buruzko iritzia ematea eragozten digu.

IV.1.3. Legezketasuna.

Etxarri Aranazko jarduera ekonomiko-finantzarioa, oro har, legezketasun hatsapenak errespeta-tuz egiten da. Dena den, txostenean aipaturiko arau-hauste batzuk antzeman ditugu, funtsean, gastuaren aurretiko fiskalizazio eza eta obra eta langileen kontratazioan egiten direnak.

IV.1.4. Egoera finantzarioa.

Ohiko eragiketei dagokienez, Etxarri Aranazko Udalak dirusarrera handiagoak ditu gastuak baino. 1996an aurrezki garbia 43 milioikoa izan zen eta zor-maila zor-muga baino askoz murrizta-

goa du. 1996an eginiko inbertsio kopuru handia dela eta, sorturiko aurrezki gordina ez da aski izan dirulaguntza eta ondare-dirusarrerez finantziatu ez den inbertsioaren zatia ordaintzeko. Horrek sorturiko defizita aurreko urteetako gerakinaz estali da. 1996ko abenduaren 31ko diruzaintzako gerakina negatiboa da 15 milioitan eta epe luzeko zorra 98 milioikoa da.

IV.2. MUSIKA UDAL ESKOLAREN PATRONATUA.

IV.2.1. Aurrekontu kitapena.

Patronatuak ez du ekitaldiko aurrekontu kitapenarik aurkeztu eta, beraz, ezin dugu 1996ko ekitaldiko aurrekontuaren betetzeari buruzko iritzirik eman.

IV.2.2. Legezketasuna.

Patronatuak aurrekontua badu baina ez da Udalaren aurrekontuan sartzen, Udalaren Osoko Bilkurak ez du onartzen, ez da aurrekontuaren kitapenaren betetzea aurkezten. Beraz, erakunde autonomoak ez du betetzen bete beharreko aurrekontu-arautegia.

V. EGOERA FINANTZARIOAK.

Etxarri Aranazko Udalak 1996an aurkeztu dituen egoera finantzarioak honakoak dira:

- 1996ko ekitaldiko aurrekontu kitapenari dagozkion dirusarrera eta gastuen egoera.

- Diruzaintzako gerakinaren egoera 1996ko abenduaren 31n.

1996ko gastuen aurrekontuaren betetzea

Kontzeptua	Kontua	Hasierako aurreikuspena	Aldak. gora/behera	Behin betiko aurreikuspena	Onarturiko bete-beharrak	Kitaturiko gastuak	Ordain-tzeke	Bete-beharraren %	Onarturiko osoren %
Itxit. ekitald. erresultak	0	30.643.952	0	30.643.952	30.643.952	29.752.768	891.184	100	10
Langileriaren gastuak	1	43.898.417	0	43.898.417	45.021.148	44.413.093	608.055	103	14
Ohiko ond. eta zerb. gast.	2	48.547.971	0	48.547.971	42.705.743	36.992.977	5.712.766	88	14
Gastu finantzarioak	3	6.119.644	0	6.119.644	5.548.372	5.548.372	0	91	2
Ohiko transferentziak	4	18.069.231	0	18.069.231	29.264.695	19.850.295	9.414.400	162	9
Inbertsio errealak	6	240.204.611	0	240.204.611	129.642.142	76.732.223	52.909.919	54	42
Pasibo finantzarioak	9	35.562.431	0	35.562.431	27.721.517	27.721.517	0	78	9
96ko gastuak, guztira		423.046.257	0	423.046.257	310.547.839	241.011.245	69.536.324	73	100

1996ko dirusarreraren aurrekontuaren betetzea

Kontzeptua	Kontua	Hasierako aurreikuspena	Aldak. gora/behera	Behin betiko aurreikuspena	Onarturiko esku-bideak	Kitaturiko dirubilketa	Kobra-tzeke	Bete-beharraren %	Onarturiko osoren %
Itxit. ekitald. erresultak	0	81.837.781	0	81.837.781	81.837.781	57.691.815	24.145.966	100	25
Zerga zuzenak	1	28.640.400	0	28.640.400	30.602.580	29.577.927	1.024.653	107	9
Zeharkako zergak	2	20.684.000	0	20.684.000	18.692.898	17.165.270	1.527.628	90	6
Tasak eta beste dirusarr.	3	102.814.363	0	102.814.363	60.923.290	49.485.193	11.438.097	59	19
Ohiko transferentziak	4	56.462.890	0	56.462.890	64.476.546	61.998.710	2.477.836	114	20
Ondare eta komunalaren dirusarrerak	5	27.662.208	0	27.662.208	24.123.686	13.519.304	10.604.382	87	7
Inberts. err. besterengan.	6	7.000.000	0	7.000.000	0	0	0	0	0
Kapital transferentziak	7	84.023.815	0	84.023.815	36.902.095	36.662.095	240.000	44	11
Aktibo finantzarioak	8	4.862.559	0	4.862.559	4.859.555	4.166.344	693.211	100	2
96ko dirusarrerak, guztira		413.988.016	0	413.988.016	322.418.431	270.266.658	52.151.773	78	100

Diruzaintzako gerakinaren egoera 1996ko abenduaren 31n

	Zenbatekoa pezetatan
Ekitaldiko onarturiko eskubideak, kobratzeke daudenak	28.005.807
Itxitako ekitaldietako eskubideak, kobratzeke dudenak	24.145.966
Aurrekontutik kanpoko eskubideak (ABIL)	0
Kobratzen zailak diren saldoak	0
Ekitaldiko onarturiko betebeharrak, ordaintzeke daudenak	(68.645.140)
Itxitako ekitaldietako onarturiko betebeharrak, ordaintzeke daudenak	(891.184)
Aurrekontutik kanpoko betebeharrak (ABIL)	(6.801.528)
Kontu finantzarioen saldoa	31.655.941
96-12-31ko gerakina, guztira	7.469.862

VI. ONDORIO ETA GOMENDIOAK.

Ondoren, Udalaren antolaketa eta barne kontrola eta, beraz, kudeaketa hobetzeko, egokitzat jotzen ditugun gomendio orokorrak biltzen ditugu eta baita txostenaren ondorio nagusiak ere.

VI.1. AURREKONTUAREN BETETZEAREN INGURUKO IRUZKIN NAGUSIAK.

IV. atalean iritziari buruz esandakoarekin bat etorritik, aurrekontuaren betetzearen ondoriozko alderdiok azpimarratu nahi ditugu:

1996an indarrean izan zen aurrekontua 1996ko ekainaren 19ko osoko bilkuran onartu zen.

1996an ez da aurrekontu aldaketarik erregistratu nahiz eta osoko bilkurak horietako batzuk onartu. Horren ondorioz, onarturiko betebeharrak batzuk behin betikotzat onarturiko aurrekontu-zenbatekoak baino handiagoak izan dira.

Aurrekontuaren kitapenak ekitaldiko dirusarrera eta gastutzat biltzen ditu itxitako ekitaldiei dagozkien kobratu eta ordaindu gabeko erresultak, 81,8 eta 30,6 milioioak, hurrenez hurren. Onarturiko eskubide eta betebeharren ehuneko 25 eta 10 dira, hurrenez hurren.

1996ko aurrekontuaren betetze maila ehuneko 73 izan da. Kapitularik garrantzitsuenak inbertsio errealak izan dira, onarturiko betebeharren ehuneko 42. Langileriaren gastuak eta ohiko ondasun eta zerbitzuen erosketak onarturiko betebeharren ehuneko 14 dira.

1996ko dirusarreraren aurrekontuaren betetze maila orokorra ehuneko 78 izan da. Kapitulu nagusiak ohiko transferentziak eta tasak eta beste dirusarrerak dira, onarturiko eskubide guztien ehuneko 20 eta 19, hurrenez hurren.

Egozpen kontable batzuk aurrekontu kontu-sail desegokietan egin dira. Txostenean aipatzen diren egozpen desegoki horiek BEZaren erregistroari daude loturik.

Ekitaldian onarturiko eskubideak 322 milioi dira eta onarturiko betebeharrak 31 milioi. Beraz, superabita 12 milioiokoa da. Iritziari buruzko atalean aipaturiko gorabeherak kontuan hartu balira, onarturiko dirusarrera eta gastuak 290 eta 310 milioi izanen ziren, hurrenez hurren, eta defizita 20 milioiokoa.

Aurreko lerroaldeotan esandakoarekin bat etorritik, hauxe gomendatu nahi dugu:

Udalaren behin betiko aurrekontua onartzekoan indarrean dagoen legediak finkatzen dituen

epeak betetzea egin beharreko aurrekontu aldaketak eginez, aurrekontua kudeaketarako oinarrizko tresna izan dadin.

Udal Kontuhartzaitzak gastuaren aurretiko kontrolaren prozedurak zehaztea, kitaturiko betebeharrak behin betiko aurrekontua baino handiagoak izan ez daitezen.

Gastu eta dirusarrerak dagoen aurrekontu diru-sailari egozte Toki Administrazioaren Foru Legeak agindutakoaren arabera.

Gastu eta dirusarrerak eragiketarako egitean erregistratzea, behin dagozkien eskubide eta betebeharrak onartu eta gero.

VI.2. KONPROMISOAK ETA BESTELAKO GORABEHERAK.

1996ko abenduaren 31n argitu gabe dago lagun batek Udalaren aurka tartekatutako administrazioarekiko auzi errekurtsio bat, lur sail baten salmentari lotuta. Aipatu auzia Epaitegi Gorenaren hirugarren aretoak argitu behar du. Errekurtsioa aurkeztu duenak 18,6 milioi eskatzen ditu eta baita erreklamazio egunetik (1990eko urriak 11) orain arteko interesak ere. Aipatu auziak Udalarik ezkar liezaiokeen pasiboa zenbatzerik ez dago.

VI.3. EGOERA EKONOMIKOA 1996ko ABENDUAREN 31n.

Ondoren 1996ko abenduaren 31ko Udalaren diruzaintzako gerakinaren egoera aurkeztu dugu, laburbilduta:

	Milioi pezetak
Kobratzeke dauden eskubide garbiak	52
Ordaintzeke dauden betebeharrak garbiak	(76)
Diruzaintzako fondo likidoak	31
Diruzaintzako gerakina 96-12-31n	7

Udalaren egoera finantzarioaren egoera behar bezala aztertze honakoa kontuan hartu beharko litzateke:

- Kobratu eta ordaindu gabeko eskubide eta betebeharren artean ez dira sartu Udalaren dirusarrerak eta gastu batzuk. Kontabilizatu gabeko dirusarrera eta gastuak 21,7 eta 13,3 milioioak dira, hurrenez hurren.

- Kobratu gabeko eskubideen artean aurreko ekitaldietako 15 milioi daude, kobratzen zailak diruditenak.

Aurreko lerroaldeotan azaldutakoaren ondorioa kontuan hartuz gero, diruzaintzako gerakina 0,4 milioikoa litzateke.

Ondoren Udalaren egoera ekonomikoari buruzko datu adierazgarriak aurkezten ditugu. 1996ko datuak kalkulatzeko Udalak aurkezturiko aurrekontu kitapenari iritziari buruzko atalean aipaturiko doiketak egin zaizkio.

Kontzeptua	1995 (*)	1996 (**)
Superabita (defizita) (milioi pezetak)	45	(5)
Aurrezki gordina (1) (Milioi pezetak)	74	66
Aurrezki garbia (2) (Milioi pezetak)	29	43
Zorpetze maila (3)	22%	13%
Zorpetzearen muga (4)	36%	47%
Gastu publikoa biztanleko (pezetak)	105.153	119.233
Inbertsioak biztanleko (5)	29.192	60.175
Zergazko dirusarrerak biztanleko (6) (pezetak)	62.206	49.374

(*)1995eko datuak ikuskatu gabe daude

(**) Datu doituak

(1) Ohiko dirusarrerak, funtzionamendu gastuak. Ohiko dirusarrerak dirusararren 1-4 kapituluak dira eta funtzionamendu gastuak gastuen 1, 2 eta 4 kapituluak.

(2) Aurrezki gordina-zama finantzarioa. Zama finantzariotzat gastuen 3. eta 9. kapituluak jotzen ditugu.

(3) Zama finantzarioa / Ohiko dirusarrerak x 100.

(4) Aurrezki gordina / Ohiko dirusarrerak x 100.

(5) Inbertsio gastuak / biztanleak

(6) Zergazko dirusarrerak (1, 2 eta 3. kapituluak) / Biztanle kopurua

Aurreko datuen azterketak honako **ondorioak** ditu:

Ohiko eragiketei dagokienez, Etxarri Aranazko Udalak superabita lortzen du, aurrezki gordin positiboa handia da eta zor maila zor muga baino nabarmen murriztagoa du. 1996ko inbertsio maila handia dela eta, biztanleko gastu publikoa eta inbertsioaren indizea gehitu dira.

Presio fiskala handia da bi ekitaldietan kalkulu egiterakoan zerga bereziak eta bestelako ez ohiko dirusarrerak ere kontuan hartu baitira (1996an biztanleko 5.000 pezetakoak izan dira). 1995eko datuekiko beherakadaren arrazoia da ekitaldi horretan aurreko ekitaldietako BEZaren itzulpenengatik eta oihan-probetxamenduagatik dirusarrerak erregistratu zirela, 26 eta 24 milioi, hurrenez hurren.

VI.4. ERAKUNDE AUTONOMOA.

Etxarri Aranazko Musika Eskolaren Patronatuak 1995-1996 ikasturteari dagokion dirusarrera eta gastuen aurrekontua egin du, toki erakundearen aurrekontu eredura egokitzen ez dena. Aurrekontua ez da Udalaren aurrekontuaren barruan sartzen eta, gainera, ez du Osoko Bilkurak onartu.

Patronatuak ez du aurrekontu kitapenaren betetzea aurkeztu eta Udalak ez du erakunde autonomoaren dirusarrera eta gastuen gaineko kontrol edo fiskalizaziorik egin.

Ondoren, Patronatuak 1995-1996 ikasturtera-ko eginiko dirusarrera eta gastuen aurrekontua aurkeztu dugu:

Gastuak	Pezetak	Dirusarrerak	Pezetak
Langileria	12.931.672	Nafarroako Gobernutik	2.800.000
Mantenimendua	460.000	Etxarriko ikasleen kuotak	5.165.000
Materiala	1.550.000	Beste ikasleen kuotak	2.016.000
Beste gastuak	370.000		
Gastuak, guztira	15.311.672	Dirusarrerak, guztira	9.981.000

1995-1996 ikasturtean langileriarri ordaindutako 1,4 milioiko dirutzak ez du behar bezalako euskarrikerik, ez lan kontraturik eta ezta Udalarekiko merkatal harremanik ere. Aipatzekoa da 1996-1997 ikasturtean egoera hori zuzendu egin dela.

1995-1996 ikasturtean 160 ikasle zeuden matrikulaturik eta 13 irakasle aritu ziren lanean.

1996an eginiko kontratazio guztiak aldi bera-koak izan dira. Bete beharreko lanpostuetarako ez da eskaintza publikorik egin eta, beraz, gai horretan toki erakundeek bete beharreko arauteria ez da bete.

Hona hemen gure gomendioak:

*Urte naturalari dagokion aurrekontu eta ondo-
rengo kitapena egitea, toki erakundeek duten ere-
duaren arabera, eta Udalaren aurrekontu eta kita-
penetan sartzea.*

*Langileriaaren kontratazioari dagokionez, kon-
tratu finko nahiz aldi baterakoak egiterakoan, toki
erakundeek agintzen zaizkion eskakizunak bete-
zea.*

VI.5. IRUZKIN OROKORRAK.

Deus erran baino lehen, aipatzekoa da hilabe-
te batzuetan Udalak ez duela kontuhartzailerik
izan eta horrek eragiketen kontabilizazio prozesua
atzeratzeaz gain, aurrekontuaren kontrol prozedu-
rak betetzea eragotzi du: gastuaren aurretiko fis-
kalizazioa eta aurrekontu betetzearen aldizkako
jarraipena. Aipaturikoaren ondorioz ez da aurre-
kontu aldaketarik egin eta osoko bilkurak onarturi-
ko aldaketak ere ez dira erregistratu.

1997ko ekitaldian kudeaketa hobetu bada ere,
bada oraindik hobetu beharreko arlorik, hala nola,
betetze-oinarrien erredakzioa eta aldizkako aurre-
kontu kitapenak.

VI.5.1. Prozedura administratibo eta kontableak.

Ziklo administratibo eta kontable garrantzitsuei buruzko prozedura idatzirik ez dago.

Oinarrizko barne prozedura administratibo eta kontableak zehazteko gomendatzen dugu erosketak, nomina, kobrantza eta ordainketarako.

VI.5.2. Gastuen kontabilitate-erregistroa.

Gastuaren baimen eta eskuragarritasuna eta baita betebeharraren aitortena ere pauso bakar batean kontabilizatzen dira eta, batzuetan, faktura jaso eta gero, behin faktura-ahalmena duen pertsonak eta organoak onartu eta gero.

VI.5.3. Erregistro-liburuak.

Udalaren erregistro-liburuak ez daude behar bezala eginbideraturik, alkatearen eta idazkariaren sinadurarekin, eta ez dute Udalaren zigilua.

Kontu hartzailetzaren liburuak behar bezala eginbideratzea gomendatzen dugu.

VI.5.4. Ondasun higiezinak eta komunalak.

Udal idazkaritzak emaniko informazioaren araber, Udalak ez ditu bere ondasun higiezin eta komunal guztiak jabetzaren erregistroan sarturik.

VI.5.5. Jasotako abalen erregistroa.

Jasotako abalak ez daude erregistraturik ABI-Letan. Komenigarria litzateke jasotako bankuen abal guztiak kontu horietan erregistratzea.

VI.5.6. Diruzaintza.

Udalak 1996ko abenduaren 31n saldo handiak ditu zenbait kontu korrontetan, interes murrizta dituztenak, eta kreditu eta mailegu kontuek, aldiz, interes tipo handiak dituzte, zenbait kasutan merkatuaren gaur egungoak baino handiagoak.

Banku-kontu batzuen fondoen erabilpena sinadura dutenentako edonork onar dezake.

Errekurtso finantzarioen kudeaketa egokia lortzeko diruzaintzaren aurrekontua egitea gomendatzen dugu. Halaber, merkatuaren interes tipotik gorako interesak berriro negoziatzea gomendatzen dugu.

Banku-kontuak erabili ahal izateko gutxienez bi lagunen sinadura mankomunatua eskatzea gomendatzen dugu.

VI.5.7. BEZaren aitortpenen atzerapena.

BEZaren aitortpen eta ordainketa indarrean dagoen arauteriak agindutako epearekin konparatuz, atzerapen handiz egiten dira. Udalak erabilitako sistema informatikoarekin ezin dira lortu Foru Ogasunari eman beharreko informazioaren datu batzuk, hala nola, hirugarrenetik fakturazioa, beharrezkoa azken hau "Eragiteken urteko aitortpena" izeneko BEZaren eredia prestatzeko.

VI.6. INTERESEKO BESTE GAI BATZUK.**VI.6.1. Langileriaren gastuak.**

Langileriaren gastuetan biltzen dira, funtsean, funtzionarioen, lan kontratupekoen eta aldi baterako kontratatuen soldatak, zinegotzien ordainsariak eta Gizarte Segurtasuna eta montepioei ordainduriako kuotak. 1996ko ekitaldian onarturiko betebeharrak 45 milioi izan dira, gastuen aurrekontu-kitapenaren 14. Behin betiko aurrekontua ehuneko 103 bete da. Gastu horien xehetasunak honakoak dira:

Langileriaren ordainsariak	
Kontzeptua	Kitatutako betebeharrak
Soldatak, graduak, aparteko sariak	12.121.090
Ordezkaritza gastuak	3.039.125
Osagarriak	1.754.023
Famili laguntza	485.531
Lan kontratupekoen soldatak	6.835.065
Kontraturik gabekoen soldatak	849.304
Gizarte Segurtasunaren kuotak	7.250.995
Funtzionarioen osasun asistentzia	245.266
Istripu-asegurua zinegotzi eta langileentzat	318.780
Funtzionarioen montepioaren kuotak	12.121.969
Guztira	45.021.148

1996ko abenduaren 31n Udaletxean lanean ari zirenen zerrendaren laburpena hau da:

Idazkaritza	1
Administrazioa	2
Hiltegia	1
Liburutegi eta ludoteka	3
Obrak eta beste batzuk	8
Guztira	15

Udaleko langileriaren organigrama eranskinean ikus daiteke.

Gastuen kapituluaren azterketaren ondorioz, honakoa egiaztatu dugu:

- Zinegotziek 1996an jasotako ordainsariak (3 milioi) ez ditu osoko bilkurak onartu.

- Ordainduriko zenbateko batzuei ez zaizkie dagozkien PFEZaren kenketak eta gizarte aseguruak aplikatu. Egoera hau 1997an zuzendu egin da.

- Obretarako kontraturiko langileen gizarte aseguruak eta festetan parte hartzen duten musikariak langileriaren gastutzat hartzen dira eta ez inbertsio errealean eta ohiko ondasun eta zerbitzuen gastutzat.

Aipatutakoaren arabera, honakoa gogoratu eta gomendatu nahi dugu:

Kapitulu honetan Udalak lan harremanen ondorioz izan dituen gastu guztiak kontabilizatzea.

Gastu guztiak behar bezala onartzea.

Egin beharreko kontratazioen publizitateari dagokionez, legea betetzea, bai behin betiko kontratuetan nola aldi baterakoetan.

Lan harreman guztiak kontratua behar dute. Bestalde, Udalak PFEZaren kenketak egitera eta Gizarte Segurantzari kuotak ordaintzera beharturik dago.

VI.6.2. Ohiko ondasun eta zerbitzuen erosketa.

Ohiko ondasun eta zerbitzuen erosketetan Udalaren funtzionamendua eta haren jardueraren garapenerako erabilitako gastuak biltzen ditu. Onartutako betebeharrak 42,7 milioi dira, onartutako gastu guztien ehuneko 14. Behin betiko aurrekontuaren ehuneko 88 bete da.

Hona haren azalpena:

Kodea	Kontzeptua	Pezetak
21	Bulego gastuak	1.687.908
22	Higiezinak gastuak	5.864.899
23	Garraioak eta komunikazioak	934.488
25	Zerbi. funtzionamendu gastuak	31.178.131
26	Inbertsioen konts. eta banak.	2.975.181
28	Zergak	65.136
	Guztira	42.705.743

Prozedurak eta kontabilizaturiko zenbatekoak aztertu eta gero, honakoa egiaztatu dugu:

- Gastuen fakturak jaso eta gero kontabilizatzen dira, ordainketa egunean askotan eta, beraz, ez da ordainketaren aurreko fiskalizaziorik egiten.

Betetako dokumentu bakarra ordain-agiria da baina inoiz ez da ADO faseetarako dokumenturik prestatu.

- Jasotako fakturen azterketan eskakizun batzuen falta egiaztatu ahal izan dugu, hala nola, IFZaren eta faktura-zenbakiaren eta BEZaren xehekapenaren eza. Zenbait kasutan, gainera, gastuak justifikatzeko dokumentazio-euskarri falta ere egiaztatu dugu.

Aurreko iruzkinaren arabera, hona hemen gomendioak:

Kontu-Hartzaitzatik gastu guztiak kontrolatzeko prozedurak finkatzea eta gastuak egiteko arauteria onartzea. Horrek gastuen fiskalizazioa eta aurrekontuaren jarraipen egokia ahalbideratuko luke.

BEZaren arauteria betetzea. Hortaz, gastuei dagokienez, dokumentazio-euskarriak eskatu eta, fakturak badira, zenbakia, IFZ eta BEZaren xehekapena eskatzea.

VI.6.3. Finantza gastuak.

Kapitulu honetan bilduriko gastu guztiak banku eta Nafarroako Gobernutik jasotako mailegu eta krediduen interesei dagozkie. Guztira 5, 5 milioi dira, onarturiko gastu osoaren ehuneko 2. Behin betiko aurrekontuaren ehuneko 91 bete da.

VI.6.4. Ohiko transferentziak.

1996ko ekitaldian onarturiko betebeharrak 29,2 milioi dira, gastuen aurrekontuaren kitapenaren ehuneko 9. Kapituluaren betetze maila handiaren (behin betiko aurrekontuaren ehuneko 162) arrazoia da BEZa duten eragiketen aipatu zerga kengarria gastutzat erregistratu egin dela.

Ohiko transferentziak Ikastola, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitate, Sakanako Mankomunitatera eta kirol, gizarte eta kultur arloetako bestelako ekitaldietara bideratu dira.

Erabilitako irizpide kontableak eta kontabilizaturiko zenbatekoak aztertuta hauxe egiaztatu dugu:

- Kultur eta kirol ekitaldietarako dirulaguntzak 1996ko bi ordenantzatan arautu badira ere, indarrean zeuden lehengo urtean ez dira beren osotasunean bete. Gainerako dirulaguntzei dagokienez, ez daude araututa. Berauen baimena aurrekontuaren kontusaila onartzean gauzatzen da eta, askotan, ondorengo dokumentazio bakarra alkateak sinaturiko ordain-agiria izaten da eta ez osoko bilkuraren adostasuna, azken hauek banaka batzuk besterik ezbaitira.

• BEZ kengarria eta Ogasun Publikoari ordaindu beharreko kuotak gastutzat erregistratu dira 10,6 milioitan.

Aurreko iruzkinaren arabera, hona hemen gure gomendioak:

Mota guztietako dirulaguntzak arautzea, prozesua finkatuz, ordenantzatan zehaztuz edo osoko bilkuraren onarpena eskatuz.

BEZ kengarria eta ABILen ordainduriko kuotak kontabilizatzea, aurrekontuaren gastuak ez handitzeko.

VI.6.5. Inbertsio errealak.

Onarturiko betebeharrak 129,6 milioi dira, betetako gastuen aurrekontuaren ehuneko 42. Behin betiko aurrekontua kontuan hartuz, betetzea ehuneko 54 izan da. Betetze maila apalaren arrazoia da aurreikusitako obra batzuk ez direla egin, hasitakoan artean batzuk berandu hasi direla eta egiten ari diren zenbait obraren betetzea ez dela kontabilizatu.

1996ko inbertsio nagusiak honakoak dira:

Lana	Adjudikatutako zenbatekoa	Kontabilizatutako zenbatekoa	Benetako zenbatekoa
Kaletako lanak	24.500.000	25.335.095	25.524.578
Hiltegia	48.386.547	37.885.148	51.159.622
Zine aretoa eta kultur etxea	83.332.438	7.521.621	45.460.485
	156.218.985	70.741.864	122.144.685

• Bureina eta Puttobeoki kaleen urbanizazioa

Obra hau lehiaketaren bidez kontratatu da. Ausarkeriazko beherakadaz adjudikatu zen 24,5 milioitan eta gero 2,7 milioitan gehitu zen aipatu zenbatekoa. Lanak egiteko epea lau hilabetekoa bazen ere, behin behineko harrera aktaren data 1997ko maiatzaren 29 da, obrak hasi eta 13 hilabete beranduago. Oraindik (97ko ekaina) ez da hiru ziurtagirietako bat jaso eta jadanik 29,1 milioiko dirutza ordaindu da.

• Hiltegia

Obra kontratatzeke lehiaketa egin zen. Hasierako aurrekontua 51,2 milioi zen eta 48,4 milioitan adjudikatu zitzaion aurkeztutako hiru eskaintzetatik merkeenari. Betetako zenbateko osoa, ordea, 59,3 milioi izan da (BEZ barne), adjudikatutako zenbatekoa baino ehuneko 22 gehiago. 1996ko aurrekontuaren kitapenean ez da abenduaren 31ko 13,3 milioiko azken ziurtagiria erregistratu.

Obra hau Sakanako Hiltegiaren Kooperatibak (ehuneko 55), FEOGAk (ehuneko 30) eta Nafarroako Gobernuak (ehuneko 15) finantzatu dute.

• Zine aretoa eta kultur etxea

Kontratazioa enkantean egin da. Adjudikazioa 76,6 milioitan eman zitzaion aurkezturiko hiru eskaintzarik merkeenari. Adjudikatzailea pertsona fisikoa izanagatik, fakturak pertsona fisikoaren izen berdintsua duen elkarte mugatu batek aurkezten ditu eta hari egiten zaizkio ordainketak. 1996an jasotako ziurtagiriak 41 milioikoak dira baina 7,5 milioi besterik ez dira erregistratu ekitaldiko gastuetan. Obra ez da oraindik bukatu eta Udaleko ordezkariak diotenaren arabera, kontabilizatu gabeko ordainagiriak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentuak eskatuta aurkeztu ziren, Gobernuak obraren ehuneko 50 finantzatzen baitu.

Azterturiko hiru espedienteen gorabeherak ondoren aipatzen ditugunak dira:

• Proiektu teknikoetan lanen garapenari buruzko planik ez dago eta ezta kontratistari eskaturiko sailkapenik ere.

• Kontratazio Mahairik ez da eratu eta berauen zereginak Hirigintza Batzordeak betetzen ditu.

• Administrazio Baldintzen Orrietan ez da zehazten kontratistari eskatu beharreko sailkapenarik.

Gure azterketaren ondorioz hauxe egiaztatu dugu:

• Lur-sailak desjabetzeko beharrak urbanizazio lanen hasiera nabarmen atzeratu du.

• 9 milioiko aurrekontua zuten lan batzuen betetzea 26,6 milioikoa izan da. Hortaz, aurreikusitako gastuaren mugak nabarmen gaintu dira.

Aurrekontua egiterakoan burutu beharreko obrak sartu eta, ondoren, beharrezkotzat jotzen diren aldaketak egitea gomendatzen da.

Kontratuen Foru Legea eta kontratazio publikoa arautzen duen gainerako legedia zorrotz bete behar direla gogoratu nahi dugu.

VI.6.6. Pasibo finantzarioen aldaketak.

27,7 milioiko betetzea du, aurrekontu betetzearen ehuneko 9. Behin betiko aurreikuspenaren ehuneko 78 bete da.

Hona hemen pasibo finantzarioen zerrenda 1996ko abenduaren 31n:

Baldintzak				
Entitatea	Hasierako zenbatekoa	Kontzesio-aren urtea	Urte muga	Korrituak
Nafarroako Gobernua	18.980.000	1986	1996	%4
Nafarroako Gobernua	130.010.024	1993	2002	%0
Nafarroako Gobernua	1	1989	2008	%0
Banco de Crédito Local	15.859.548	1985	1999	%11,5
Banco de Crédito Local	8.503.969	1986	1998	%11,25
Euskadiko Kutxa	50.000.000	1994	2005	Mibor+%0,65
223.353.542				

Ekitaldiko mugimenduak				
Entitatea	96-12-31ko saldoa	Amortizazioa	Altak	96-12-31ko saldoa
Nafarroako Gobernua	1.825.000	(1.825.000)	0	0
Nafarroako Gobernua	91.007.168	(13.001.024)	0	78.006.144
Nafarroako Gobernua	2.339.844	(179.988)	0	2.159.856
Banco de Crédito Local	7.086.539	(1.613.630)	0	5.472.909
Banco de Crédito Local	2.647.919	(1.101.875)	0	1.546.044
Euskadiko Kutxa	24.261.900	0	15.738.100	40.000.000
129.168.370 (17.721.517) 15.738.100 127.184.953				

Maileguen amortizazioak (17,7 milioi) eta kreditu-polizaren mugaren 10 milioiko jaitsiera kapitularen gastutzat erregistratu dira. 15,7 milioiko kredituaren zenbatekoaren igoera ere ez da pasibo finantzarioen aldaketaren ondoriozko dirusarreratzat erregistratu.

Epe luzerako kreditu-kontuak pasibo finantzeieroen zerrendan bildu beharko lirateke, dagoen zenbatekoan, eta fondoan erabilera eta kreditu-kontuen murrizketa edo itzulpenak pasibo finantzarioen aldaketaren ondoriozko dirusarrera edo gastutzat erregistratu beharko lirateke, hurrenez hurren.

VI.6.7. Zergen bidezko dirusarrerak.

De acuerdo con la liquidación del presupuesto de 1996, los capítulos de ingresos tributarios presentan la siguiente ejecución:

(mila pezetatan)		
Kontzeptua	Behin betiko aurreikuspena	Aitortua
Zuzeneko zergak	28.640	30.603
Zeharkako zergak	20.684	18.693
Tasak	102.814	60.923
Guztira	152.138	110.219

1996an kitatu eta kontabilizatutako zuzeneko zergak hiri eta landa kontribuzioa eta lizentzia fiskala dira. Bildutako zenbatekoa 30,6 milioi da, onartutako eskubideen ehuneko 9, eta aurrekontu betetzea ehuneko 107 izan da.

Ekitaldian kitaturiko zeharkako zerga nagusiak, berriz, zirkulazioaren gaineko zerga, obren lizen-

tzia eta Telefonikaren hegalkina, lurzorua eta lurrazpia erabiltzearen gaineko kanona. Onartutako eskubideak 18,7 milioi dira, aurrekontuaren ehuneko 90, onartutako eskubide guztien ehuneko 6.

Tasak eta beste dirusarreraren kapituluan, funtsean, ur hornikuntza, zabor bilketa, hirigintza-zerga eta zerga bereziak, BEZa eta komunalaren probetxamendua. Onartutako eskubideak 60,9 milioikoak dira, onartutako osoaren ehuneko 19. Betetze maila behin betiko aurrekontuaren ehuneko 59.

Prozedura kontableak eta eta kontabilizatutako zenbatekoen azterketa kontuan hartuz, hona hemen **ondorioak**:

- NILSAri saneamendu kanonengatik ordaindutako 3,3 milioi, 1994 eta 1995eko ekitaldiei dagozkie, ekitaldiko dirusarreraren murrizketatzat erregistratu dira. Dirutza hori ohiko ondasun eta zerbitzuen gastuen saldoaren igoeratzat erregistratu beharko litzateke.

- Udalaren osoko bilkurak ez ditu 1996an indarrean egon diren zergadunen erroldak onartu.

- Bide publikoen okupazioa eta trafikoaren arauketaren gaineko ordenantzen tasak ez dira ordainarazi.

- BEZa ordaindu behar duten eragiketen zenbatekoa (10,5 milioi) kapitularen dirusarreratzat erregistratu da.

1996ko abenduaren 31n kobratzeke zeuden itxitako ekitaldietako eskubideen saldoa honakoa zen:

Mila pezetatan	
1992 eta aurrekoak	5.347
1993	726
1994	6.205
1995	11.868
Guztira	24.146

Kobratzen zailak diren saldoak 15 milioikoak direla uste dugu.

Aurreko lerroaldeotan errandakoaren arabera honakoa gogoratu eta gomendatu nahi dugu:

BEZa ABILn kontabilizatzea, aurrekontuaren dirusarrerak ez handitzeko.

Itxitako ekitalditako konbratu gabeko saldoen erresultak, batez ere derrigorrezko dirubilketa agentziari eman ez zaizkionak, kobragarriak diren ala ez aztertu beharko litzateke. Horren ondoren,

kobragarri ez diren kredituen zerrenda egin behar-ko litzateke horretarako ahalmena duen organoak bertan behera utzi edo kobrantzaren kudeaketa segitu behar den erabaki dezan.

VI.6.8. Ohiko transferentziak.

Kapituluak Udalak jasotako kontraprestaziorik gabeko zergaz besteko dirusarrerak biltzen ditgu. Dirusarrera hauek ohiko eragiketengatik gatuak finantzatzeko erabiltzen dira. Kapitularen dirusarrerak 64,4 milioi izan dira, onartutako eskubide guztien ehuneko 20. Betetze maila aurrekontuaren ehuneko 114 izan da.

Jasotako transferentzia gehienak Nafarroako Gobernutik datoz.

Jasotako ohiko transferentzien erregistrarako Udalak kutzako irizpide kontablea erabiltzen du. Horregatik, 1996ko abenduaren 31n kobratzake zegoen 1,7 milioiko dirulaguntza ez da ekitaldiko dirusarreratzat islatu.

VI.6.9. Ondasun dirusarrerak.

24,1 milioiko dirusarrerak ditu, dirusarrera guztien ehuneko 7. Behin betiko aurrekontuaren betetzea ehuneko 87 izan da.

Kapituluaren dirusarrerak gehienak hiltegiaren eta beste udal ondasunen errentamenduetatik eta Udalak bankuetan eta Nafarroako Gobernuarekin dituen kontuen interesetatik datoz.

Hiltegiaren errentapenari dagokionez, islatutako dirusarrerak 22,2 milioi dira. Dirutza hori da Udalak Sanakako Hiltegiaren Kooperatibari orain arte fakturatutakoa. Izan ere, bi erakundeen arteko hitzarmenaren arabera, kooperatibak hiltegian egiten ari diren obren ehuneko 55 finantzatzen du eta horren truke datozen hogeitun urteotan ez du hiltegiaren errentarik ordainduko.

VI.6.10. Kapital transferentziak.

Kapituluan bilduriko transferentziak kapital eragiketarako dirulaguntzak dira. 1996an onarturiko eskubideak 36,9 milioi dira, onartutako osoaren ehuneko 11.

Kapital dirulaguntzen erregistrarako kutzako irizpide kontablea erabiltzen denez, 1996ko abenduaren 31ean kobratzeke zegoen 35,2 milioiko dirulaguntza ez da islatu eta horixe da kapituluaren betetze maila apalaren arrazoia.

Dirulaguntzak ematen diren ekitaldiko dirusarreretan bildu behar dira, dirulaguntza kobratzeko eskubidea badela frogatu eta gero.

VI.6.11. Aktibo finantzarioak.

4,8 milioiko betetzea izan du, aurrekontuaren betetzearen ehuneko bi. Behin betiko aurreikusita-koaren ehuneko 100 bete da.

Aktibo finantzarioak udal lur eremu baten partzelazio eta urbanizazioaren ondoriozko epe luze-rako zenbatekoen kobrantzari dagozkio. Udalak eta lur sail berrien jabeek 1992an hitzartutakoaren arabera, zenbateko osoaren ehuneko 70 (BEZ alde batera utzita) hamar urtekotan ordainduko da interesik gabe.

Udalaren sistema informatikoak ez du aktibo finantzarioen zerrenda eskaintzen. 1996ko abenduaren 31n aktibo finantzarioak 29 bat milioikoak izan daitezke (2002 urtera arte 4,8 milioi urteko).

VI.6.12. Hirigintza eta ondarea.

Etxarri Aranazko Udalak arau subsidiarioak baditu baina ez dagokien azterketa ekonomiko finantzarioa. Arauen azken aldaketa 1986an egin zen.

Udaleko ordezkariak diotenez, hirigintza plana Lurzoruaren Erregimen eta Hiri Antolamenduari buruzko 1992ko ekainaren 26ko legearen testu bilduari eta Hirigintza eta Lurralde Antolaketari buruzko 10/94 Foru Legeari egokitzen hasia da.


Udalak ez du lurzoruaren udal ondasuna egina.

Lurzoruaren udal ondarea egiteko beharra gogoratu nahi dugu. Hirigintza eta Lurralde Antolamenduari buruzko Foru Legearen arabera, ondarea honako ondasun mota hauek osatuko dute: hirigintza planak lurzoru urbano edo urbanizagarri programatutzat hartutakoak eta, halaber, lagapen (lursailez edo diruz), edozein motatako hirigintza-desjabetze eta eroslehentasun eta atzera eskuratzeko eskubidearen bidez eskuratutakoak.

Iruñean 1997ko urriaren 9an

Lehendakaria: Francisco Javier Tuñón San Martín

ERANSKINA: ETXARRI ARANAZKO UDALAREN ORGANIGRAMA 1996ko ABENDUAREN 31n.



Olaztiko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldiari dagokiona, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 22an eginiko bilkuran, Kontuen Ganbarak egindako Olaztiko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldiari dagokiona, argitara dadila agintzea erabaki zuen.

Iruña, 1997ko urriaren 23a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Olaztiko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldiari dagokiona, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (25. or.).
 - II. Helburua (25. or.).
 - III. Norainokoak eta mugak (25. or.).
 - IV. Iritzia (26. or.).
 - IV.1. Olaztiko Udala (26. or.).
 - IV.2. Musika udal eskolaren patronatua (26. or.).
 - V. Egoera finantzarioak (26. or.).
 - VI. Ondorio eta gomendioa (x28. or.).
 - VI.1. Aurrekontuaren betetzeari buruzko iruzkinak (28. or.).
 - VI.2. Konpromisoak eta bestelako gorabeherak (29. or.).
 - VI.3. Egoera ekonomikoa 1996ko abenduaren 31n (29. or.).
 - VI.4. Erakunde autonomoa (30. or.).
 - VI.5. Iruzkin orokorrak (30. or.).
 - VI.6. Intereseko beste gai batzuk (30. or.).
- Eranskina.** Organigrama (35. or.).

I. SARRERA.

Olazti Iruñeko merinaldeko udalerria da, Sakanan kokatuta dagoena. 1996ko abenduaren 31ko eroldaren arabera 1.622 biztanle eskubidedun ditu.

Olaztiko Udalak Musika Udal Eskolaren Patronatuan parte hartzen du eta hiri hondakinen bilketa eta tratamenduaz arduaritzen den Sakanako Mankomunitatean dago sarturik eta baita Altsasu-

Ziordi-Olaztiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean ere.

II. HELBURUA.

Nafarroako toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/90 Foru Legearen eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/84 Foru Legearen arabera, Ganbararen jarduera planari jarraituz, Olaztiko Udalaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta 1996ko gastu eta dirusarreraren aurrekontuaren betetzea fiskalizatzeari ekin zaio.

Azterturiko udal erakundeari ezar dakioken legediaren barruan honakoak biltzen dira funtsean: uztailaren 2ko 6/90 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa; apirilaren 2ko 7/1985 Legea, toki erregimenaren oinarriak arautzekoa; 1981eko ekainaren 8ko araua, toki ogasunak eraberritzeari buruzkoa eta hori garatzeko erregelamendua, 1981eko abenduaren 17koa; orobat, Nafarroako toki erakundeeri eskuarki ezar dakikeen gainerako arauteria.

Txostenaren xedea da gure iritzia ematea hurrengo gaii buruz:

- a) Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 1996ko aurrekontuaren garapena eta burutzea.
- b) 1996ko abenduaren 31ko ondare egoera, eskuarki onartzen diren kontabilitate hatsapenen arabera.
- c) Udalaren jarduera ekonomikoa eta finantzarioa legezketasuna hatsapenen arabera.
- d) Erakundearen egoera finantzarioa 1996ko abenduaren 31n.

III. NORAINOKOAK ETA MUGAK.

Txostenean dirusarrerara eta gastuen kapitulu ekonomikoa nagusiak aztertu dira. Antolaketa, kontabilitatea eta barne kontroleko alderdi batzuk ere jorratu dira beharrezkotzat jotako frogak eginez, beti ere aintzat hartuta Udalari bidali zitzaion galdetegian agertzen diren arazoak. Espainiako Estatuko kanpo kontroleko organo publikoen Koordinazio Batzordeak sektore publikoaren audiotretza printzipio eta arauak aplikatu dira.

Erakunde autonomoaren kontuak (Olaztiko Udal Musika Eskolaren Patronatua) ez dira Udalaren kontuetan sartzen. Haren aurrekontuaren kitapenaren egoerak 1995-1996 ikastaroarekin bat

egiten du. Gure lana aipatu aurrekontua egiazta-
tzera mugatu da.

Gure lanak izan duen muga honakoaren ondo-
rio da:

- Udalaren kontabilitatea aurrekontuaren jarrai-
pena egitera mugatzen da (aurrekontu kontabilita-
tea) eta, beraz, ez dago kontabilitate orokorrik.
Horretaz gain, Udalak ez du ekitaldi amaierako
ondare egoera islatzen duen ondasun zerrenda
gaurkoturik.

Txostenean Udalaren kontu eta administrazio
prozedurak hobetzeko egokitzat jotzen ditugun
iruzkin eta gomendioak bildu ditugu.

Zelaiko lana 1997ko ekainean egin zen.

Olaztiko Udaleko langile guztien laguntza
eskertu nahi dugu, gure lana burutzea erraztu
egin baitute.

IV. IRITZIA.

Burururiko fiskalizazioaren esparruan Olaztiko
Udalaren gastu eta dirusarreraren betetzearen ego-
era aztertu dugu, 1996ko ekitaldiari dagokiona.

Azterketan, Espainiako Estatuko kanpo kontro-
leko organo publikoen Koordinazio Batzordeak
sektore publikorako ezarritako auditoretza arau eta
prezedurak aplikatu dira.

Azterketaren ondorioz, horra gure iritzia:

IV.1. OLAZTIKO UDALA.

IV.1.1. Aurrekontuaren kitapena.

Gure iritziz, 1996ko aurrekontuaren kitapenak
ekitaldiko aurrekontu emaitza, kobratzeke dauden
eskubideak, ordaintzeke dauden betebeharrak eta
Olaztiko Udalak 1996ko abenduaren 31n zuen
diruzaintzako gerakina egoki islatzen ditu alderdi
nagusietan eta hori dena indarrean dagoen lege-
diaren arabera egin da. Hala ere bada salbuespen
bat:

- Tasak eta beste dirusarrerak kapituluan bada
Sakanako Autobidearen enpresei kobratu beha-
rreko 104 milioiko dirutza, hondakin isurketagatiko
tasei dagokiena. Dirutza hori kobratzerik ote
dagoen ez dago garbi. Izan ere, zordunek Nafa-
rroako Justizi Auzitegi Nagusian kobrantzaren
aurkako errekurtoa aurkeztu baitute.

IV.1.2. Ondare egoeraren isla.

Ondare kontabilitaterik ez dago eta, beraz,
egoera balantzerik ere ez. Horrek Udalaren
1996ko abenduaren 31ko ondare egoerari buruz-
ko iritzia ematea eragozten digu.

IV.1.3. Legezkotasuna.

Olaztiko jarduera ekonomiko-finantzarioa, oro
har, legezkotasun hatsapenak errespetatuz egiten
da. Dena den, txostenean aipaturiko arau-hauste
batzuk antzeman ditugu, batez ere langileriaren
kontratazioan.

IV.1.4. Egoera finantzarioa.

Olaztiko Udalaren egoera finantzarioa ona da.
VI.3 kapituluan adierazitakoaren arabera, 1996ko
ekitaldian, kobratzen zailak diruditen eskubideak
alde batera utzita, 13 milioiko superabita dago eta
aurrezki garbia 4 milioikoa da. 1996ko abendu-
aren 31n diruzaintzako gerakina 59 milioikoa da.

IV.2. MUSIKA UDAL ESKOLAREN PATRO- NATUA.

IV.2.1. Aurrekontuaren kitapena.

Gure iritziz, aurkezturiko aurrekontuaren kita-
penak 1995-1996 ekitaldiko gastu eta dirusarrerak
ongi islatzen ditu bere alderdi nagusienetan.

IV.2.2. Legezkotasuna.

Aurrekontuaren kitapenaren burutze eta bete-
tzean ez da indarrean dagoen arauteria errespe-
tatzen. Izan ere, arauteriaren arabera, aurrekon-
tua osoko bilkura onartu behar du eta urte
naturalarekin bat egin behar du eta Udalaren
aurrekontuaren barruan sartu behar da. Langile-
riaren kontratazioan ere ez da indarrean dagoen
legedia betetzen.

V. EGOERA FINANTZARIOAK.

Olaztiko Udalak aurkezturiko 1996ko ekitaldiko
egoera finantzarioak honakoak dira:

- 1996ko ekitaldiko aurrekontuaren kitapenari
dagozkion dirusarrera eta gastuen egoera.
- 1996ko ekitaldiko aurrekontu emaitza
- Diruzaintzako gerakinaren egoera 1996ko
abenduaren 31n.

1996ko gastuen aurrekontuaren betetzea

Kontzeptua	Kontua	Hasierako aurreikuspena	Aldak. gora/behera	Behin betiko aurreikuspena	Onarturiko bete-beharrak	Kitaturiko gastuak	Ordaintzeke	Bete-beharraren %	Onarturiko osoren %
Langileriaen gastuak	1	58.752.525	3.341.655	62.094.180	60.819.725	59.351.306	1.468.419	98	30
Ohiko ondasun eta zerbitzuen gastuak	2	56.499.839	9.605.000	66.104.839	54.618.355	52.218.892	2.399.463	83	27
Gastu finantzarioak	3	4.136.000	0	4.136.000	1.941.658	1.941.658	0	47	1
Ohiko transferentziak	4	30.421.859	16.214.232	46.636.091	41.708.426	40.452.992	1.255.434	89	20
Inbertsio errealak	6	113.270.480	9.704.373	122.974.853	35.677.439	35.039.217	638.222	29	17
Pasibo finantzarioak	9	9.477.000	0	9.477.000	9.475.302	9.475.302	0	100	5
96ko gastuak, guztira		272.557.703	38.865.260	311.422.963	204.240.905	198.479.367	5.761.538	66	100

1996ko dirusarreraren aurrekontuaren betetzea

Kontzeptua	Kontua	Hasierako aurreikuspena	Aldak. gora/behera	Behin betiko aurreikuspena	Onarturiko esku-bideak	Kitaturiko dirubilketa	Kobratzeke	Bete-beharraren %	Onarturiko osoren %
Zerga zuzenak	1	32.383.150	0	32.383.150	33.710.200	27.833.958	5.876.242	104	10
Zeharkako zergak	2	22.622.677	0	22.622.677	13.346.114	9.829.830	3.516.284	59	4
Tasak eta beste dirusarr.	3	79.569.705	9.500.000	89.069.705	197.097.800	55.472.059	141.625.741	221	61
Ohiko transferentziak	4	45.191.215	0	45.191.215	45.138.389	39.952.354	5.186.035	100	14
Ondare eta komunalaren dirusarrerak	5	1.091.000	0	1.091.000	1.201.925	1.107.558	94.367	110	1
Inbertsio errealen besterenganatzea	6	0	0	0	26.205.399	26.205.399	0	0	8
Kapital transferentziak	7	19.275.200	15.703.296	34.978.496	18.343.296	18.343.296	0	52	6
Pasibo finantzarioak	9	72.424.756	0	72.424.756	(13.906.375)	(13.906.375)	0	(19)	(4)
96ko dirusarrerak, guztira		272.557.703	25.203.296	297.760.999	321.136.748	164.838.079	156.298.669	108	100

1996ko ekitaldiko aurrekontuaren emaitza

	Pezetak
1996ko ekitaldiko aurrekontuaren emaitza, doitu gabe	116.895.843
(-) Gastuaren aldaketa positiboak	(15.703.296)
(+) Gastuaren aldaketa negatiboak	0
(+) Aurreko ekitaldiko diruzaintzako gerakinaz finantzaturiko gastuak	8.258.135
1996ko ekitaldiari egotzitako aurrekontu emaitza, guztira	109.450.682

Diruzaintzako gerakinaren egoera 1996ko abenduaren 31n

	Pezetak
Ekitaldiko onarturiko eskubideak, kobratzeke daudenak	156.298.669
Itxitako ekitaldietako eskubideak, kobratzeke daudenak	4.925.867
Aurrekontutik kanpoko eskubideak (ABIL)	0
Kobratzen zailak diren saldoak	0
Ekitaldiko onarturiko betebeharrak, ordaintzeke daudenak	(5.761.538)
Itxitako ekitaldietako onarturiko betebeharrak, ordaintzeke daudenak	(5.914)
Aurrekontutik kanpoko betebeharrak (ABIL)	(3.947.736)
Kontu finantzarioen saldoa	15.536.250
96-12-31ko gerakina, guztira	167.045.598

Olaztiko Udal Musika Eskolaren Patronatuak honako kontabilitate-egoera dauka:

1995-1996 ekitaldiko dirusarrera eta gastuen aurrekontuaren kitapena

Dirusarrerak

Kontzeptua	Aurreikusitakoa	Kitatutakoa	Kobratutakoa
Matrikularen tasak eta hilekoak	2.855.000	2.666.840	2.654.750
Olaztiko Udalaren dirulaguntza	11.792.375	10.703.806	10.715.896
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza	93.425	0	0
Dirusarrerak, guztira	14.740.800	13.370.646	13.370.646

Gastuak

Kontzeptua	Aurreikusitakoa	Kitatutakoa	Ordaindutakoa
Musika Eskolako irakasleen soldatak	10.500.000	10.154.566	10.154.566
Langileriaren gizarte aseguruak	3.898.800	2.810.355	2.810.355
Bulegorako eta irakasleendako materiala	117.000	216.433	216.433
Iragarki eta argitalpenak	65.000	81.556	81.556
Langileriaren ibiltze eta tokiz aldatze dietak eta beste batzuk	25.000	60.600	60.600
Mantenimendua	35.000	21.000	21.000
Inbertsio errealak. Tresnak.	100.000	26.136	26.136
Gastuak, guztira	14.740.800	13.370.646	13.370.646

VI. ONDORIO ETA GOMENDIOAK.

Ondoren, Udalaren antolaketa eta barne kontrola eta, beraz, kudeaketa hobetzeko, egokitzat jotzen ditugun gomendio orokorrak biltzen ditutu eta baita txostenaren ondorio nagusiak ere.

V.1. AURREKONTUAREN BETETZEAREN INGURUKO IRUZKIN NAGUSIAK.

IV. atalean iritziari buruz esandakorekin bat etorritz, aurrekontuaren betetzearen ondoriozko alderdiok azpimarratu nahi ditugu:

1996an indarrean izan zen aurrekontua 1996ko otsailaren 23ko osoko bilkuran onartu zen eta behin betiko onespena 1996ko ekainaren 8ko bilkuran eman zitzaion.

Idazkari-kontuhartzaileak ez du osoko bilkuran aurkezturiko aurrekontu proiektuari buruzko txostenik egin eta ezta eginiko aurrekontu aldaketei buruzkorik ere. Aldaketa horien artean ez da kontuan hartu 1996ko 13 milioiko dirusarrera bat, aurreko urteko diruzaintzako gerakinari dagokiona, gastuen finantzazioan erabilita. Beraz, aldaketetan sarturiko gastuek bazuten finantzazio egokia baina ez dira behar bezala islatu. Aipatzekoa da,

bestalde, aldaketa batzuk gastua egin eta gero onartu direla.

Gastuen aurrekontuaren betetze maila ehuneko 66 izan da. Kapitulu nagusiak langileriaren gastuak eta ohiko ondasun eta zerbitzuen erosketak izan dira, onarturiko betebeharren ehuneko 30 eta 27 hurrenez hurren. Betetze-maila apal horren arrazoi nagusia da inbertsioen ehuneko 29a baino ez dela bete, aurrekontuan zegoenarekin konparatuz gero.

Dirusarreraren aurrekontuaren betetze maila ehuneko 108 izan da. Kapitulu nagusia tasak eta beste dirusarrerena da, onarturiko eskubide guztien ehuneko 61.

Ekitaldian onarturiko eskubideak 321 milioiak dira eta onarturiko betebeharrak 204 milioi. Superabita, beraz, 117 milioikoa da.

Tasak eta beste dirusarrerak kapituluaren betetze maila ehuneko 221 izan da aurrekusi gabeko dirusarrera baten ondorioz. Izan ere, Nafarroako Gobernuak adjudikaturiko Sakanako Autobidearen enpreseei 104 milioi ordainarazi nahi zizkieten hondakinen isurketagatik. Zordunek, odea, tasa hori Nafarroako Epaitegi Gorenean errekurritu zuten eta momentuz ordainketa ber-

tan behera gelditu denez ez dago garbi kobragarria den ala ez.

1996ko ekitaldian aurrekontu emaitzaren egoeran 1,5 milioiko ezabapenak agertzen dira, aurreko urteetan kitaturiko eskubideen ezabapenari dagozkionak, baina ez da aurreko ekitaldieta-ko onartutako betebeharren ezabapenik egin.

Pasibo finantzarioen kapituluak dirusarrera gutxiago bezala erregistratu dira banku entitate batekin 1996an egindako itzulketa bati dagozkion 13,9 milioi pezeta, izan ere kontzeptu hori dela eta eginiko gastu gehikuntza bezala erregistratu behar zirenak.

Horrez gain, txostenean zehar zehazturiko egozpen kontable batzuk aurrekontu-sail desegokietan egin dira honako gaiotan: langileriaren soldaten eta ohiko transferentzien erregistroa (ohiko ondasunak erostea, esate baterako), ohiko transferentzia gisa jasandako eta jasanarazitako BEZa, eta tasak eta beste dirusarrerak.

Aurreko lerroaldeotan esandakoa kontuan hartuz, hona hemen gomendioak:

Aurrekontuen behin betiko onespina indarrean dagoen legediak agindutako epeetan egitea eta egin beharreko aldaketak egitea, aurrekontua oinarritzko kudeaketarako tresna egokia izan dadin.

Aldez aurretiko txostenak egitea eta Kontu-Hartzailetzatik gastuaren kontrolerako prozedurak zehaztea kitaturiko betebeharrak ez daitezen behin betiko aurrekontua baino handiagoak.

Gastu eta dirusarrerak dagozkion diru-sailari egozte, Toki Administrazioaren Foru Legeak agindutakoaren arabera.

VI.2. KONPROMISO ETA BESTE GORABEHERRAK.

Udaleko idazkari ohi batek altxada-errekurtsoa aurkeztu zuen Nafarroako Administrazio Epaitegiaren Udalarik kalte-ordaina eskatuz. Aipatu epaitegiaren ebazpena idazkariaren aldekoa izan da, ez du kalte-ordainaren zenbatekoa zehaztu eta Udalak errekurritu egin du Nafarroako Justizi Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko aferen salan. Auziak Udalarik ekar liezaiokeen pasiboaren zenbatekoa zehazterik ez dago afera argitzeke dagoelako eta, gainera, beste errekurtso bat ere tarteka litekeelako Epaitegi Gorenean.

VI.3. EGOERA EKONOMIKOA 1996KO ABENDUAREN 31N.

Ondoren 1996ko abenduaren 31ko Udalaren diruzaintzako gerakinaren egoera aurkezten dugu, laburbilduta:

	Milioi pezetak
Kobratzeke dauden eskubide garbiak	161
Ordaintzeke dauden betebeharrak garbiak	(10)
Diruzaintzako fondo likidoak	16
Diruzaintzako gereduna 96-12-31n	167

Kobratzeke dauden eskubideen artean hondakin isurketari dagokion 104 milioiko saldo bat dago, kobratzen zaila dirudiena. Halaber, aurreko ekitaldieta-ko zailak diruditen saldoak 4 bat milioikoak izan daitezkeela uste dugu. Dirutza hori kobratuko ez balitz, diruzaintzako gerakina 59 milioikoa litzateke.

Ondoren Udalaren egoera ekonomikoari buruzko datu adierazgarri batzuk aurkezten ditugu:

Kontzeptua	1995 (*)	1996	1996 (**)
Superabita (milioi pezetatan)	63	117	13
Aurrezki gordina (1) (milioi pezetak)	79	133	29
Aurrezki garbia (2) (milioi pezetak)	74	122	4
Zor maila (3)	2%	4%	14%
Zor muga (4)	38%	46%	16%
Gastu publikoa biztanleko (pezetak)	110.036	125.919	134.468
Inbertsioaren indizea (5)	30.526	21.996	21.996
Presio fiskala (6) (pezetak)	97.552	150.527	86.441

(*) 1995eko datuak ikuskatu gabe daude.

(**) Datu egokituta..

(1) Ohiko sarrerak-funtzionamendu gastuak. Ohiko dirusarrerak dirusarreraren 1-4 kapituluak dira eta funtzionamendu gastuak gastuen 1, 2 eta 4 kapituluak.

(2) Aurrezki gordina-zama finantzarioa. Zama finantzariotzat gastuen 3. eta 9. kapituluak jotzen ditugu.

(3) Zama finantzarioa. / Ohiko dirusarrerak x 100.

(4) Aurrezki gordina. / Ohiko dirusarrerak x 100.

(5) Inbertsio gastuak. / Biztanle kopurua.

(6) Zergazko dirusarrerak (1, 2 eta 3 kapituluak). / Biztanle kopurua.

1995eko datu eta 1996ko datu egokituta kontuan hartuz, hona hemen ondorioak:

1995eko datuekin konparatuz superabita eta aurrezki gordina gutxitu dira zenbait arrazoi direla medio: langileriaren gastuak handitu dira, 1996an Oihan-probetxamenduengatik 41 milioiko ez ohiko dirusarrera izan zen eta 1995eko epe luzerako kreditu baten itzulpenak 1996ko zama finantzarioa handitu zuen, aurrezki gordina murriztuz eta ekitaldiko zor-maila handituz. Hala ere, 1996ko abenduaren 31n ordaintzeke zeuden pasibo finantzarioak 4 milioi besterik ez dira.

Biztanleko presio fiskala handia da bi ekitaldieta-kanonak eta BEZa ere kontuan har-

tzen baitira kalkulua egiteko. 1996ko ekitaldian horrek biztanleko 40.000 pezetako eragina du.

VI.4. ERAKUNDE AUTONOMOA.

Olaztiko Udal Musika Eskolaren Patronatuak 13,3 milioiko aurrekontua kitatu du, 1995-1996 ikasturteari dagokiona. Aurrekontua ez da Udalarenean sartzen eta Udalak ez du onartu.

1995-1996 ikasturteko bederatzita hilabetetan 73 ikasle matrikulatu ziren eta 8 musika irakasle aritu ziren.

1995-1996 ikasturtean langileriari ordaindutako 1,4 milioiko dirutzak ez du behar bezalako euskarririk, ez lan kontraturik eta ez Udalarekiko merkatal harremanik ere. Aipatzekoa da 1996-1997 egoera hau zuzendu egin dela.

1996ko ekitaldian eginiko kontratu guztiak, Udalean bezala, aldi baterakoak izan dira. Urtero pertsona berberak kontratatzen dira, bete beharreko lanpostuen eskaintza publikorik egin gabe. Hortaz, indarrean dagoen legedia ez da betetzen.

Hona gure gomendioak:

Urte naturalari dagokion aurrekontua eta berorekin kitapena egitea eta Udalaren aurrekontuaren eta kitapenean sartzea.

Egin beharreko aldi baterako nahiz kontratazio finkoen publikitateari dagokionez, legea betetzea.

VI.5. IRUZKIN OROKORRAK.

VI.5.1. Prozedura administratibo eta kontableak.

Ziklo administratibo eta kontable garrantzitsuei buruzko prozedura idatzirik ez dago.

Oinarrizko barne prozedura administratibo eta kontableak zehaztea gomendatzen dugu (erosketak, nomina, kobrantza eta ordainketak).

VI.5.2. Gastuen erregistro kontablea.

Gastuaren baimen eta eskuragarritasuna, eta baita betebeharraren aitortzea ere, pauso bakar batean kontabilizatzen dira eta, batzutan, faktura jaso eta gero, behin faktura onartzeko ahalmena duen pertsonak eta organoak onartu eta gero.

VI.5.3. Erregistro-liburuak.

Udalaren erregistro-liburuak ez daude behar bezala eginbideraturik, alkatearen eta idazkariaren sinadurarekin, eta ez dute Udalaren zigilua.

Kontu-hartzailetzaren liburuak behar bezala eginbideratzea gomendatzen dugu.

VI.5.4. Ondasun higiezinak eta komunalak.

Udaleko idazkariak emaniko informazioaren arabera, ondasun higiezin eta komunal gehienak jabetzaren erregistroan daude erregistraturik.

VI.6. INTERESEKO BESTE GAI BATZUK.

VI.6.1. Langileriaren gastuak.

Langileriaren gastuetan biltzen dira, funtsean, funtzionarioen, lan kontratupekoen eta aldi baterako kontratuen soldatak, zinegotzien ordainsariak eta Gizarte Segurtasuna eta montepioei ordaindutako kuotak. 1996ko ekitaldian onarturiko betebeharrak 60,8 milioi dira, gastuen aurrekontuaren ehuneko 30. Behin betiko aurrekontua ehuneko 98 bete da.

Langile gastuak	
Kontzeptua	Onarturiko betebeharrak
Oinarrizko ordainsaria	3.977.941
Ordainketa osagarriak	1.350.000
Familiagatiko osagarri	94.224
Lan kontratupeko langileria	7.835.490
Langile kontratatuta	25.715.014
Gizarte aseguruak	15.162.496
Pasiboak	6.684.560
Guztira	60.819.725

Udaleko langileria 96-12-31n honakoa da:

Idazkaritza	1
Administrazioa	2
Ludoteka	1
Gainerakoak	31
Guztira	35

Udaleko langileriaren organigrama eranskinean ikus daiteke.

Gastuen kapitulua aztertuta, honakoa egiaztatzen dugu:

- Garbitzaileen nominak (6,5 milioi) langileriaren gastuetan sartu beharrean, ondasun eta zerbitzuen erosketetan sartzen dira. Egoera hori 1997an zuzendu da

- Nafarroako Gobernuak montepio finantzatzeko ematen duen dirutza (3 milioi) langileriaren gastuen murrizketatzat erregistratu da eta ez jasotako ohiko transferentzien murrizketatzat.

- Udal Taldeen ordain-sariak 1,3 milioikoak dira 1996an, eta ez ditu Udal osoko bilkurak onartu.

- 1996an kontrataturiko langile guztiak aldi baterakoak izan dira. INEMek emaniko zerrendak erabiltzen dira horretarako. Kontratuak herrikoak dira eta zerrendetan daramaten denbora da aukeraketa egiteko irizpidea. Indarrean dagoen legedia ez da betetzen ez baita bete beharreko lanpostuen publizitaterik egiten. Bada irregularitasun hau salatzen duen barne txosten bat.

- Udal osoko bilkurak ez du 1996ko plantila organikoa onartu eta, beraz, ez da betetzen Toki Administrazioari buruzko 6/90 Foru Legea. Udalak arazoa neurri batean konpondu du 1997ko ekitaldian.

- Udaleko bi langileren osagarri batzuk, zenbateko exkaxekoak, ez dira behar bezala onartu. 1997ko ekitaldian egoera zuzendu da aipatu ordain-sariak soldataren osagarritzat onartu direlako.

- Langileria ordaindutako 1,2 milioik ez dute euskarri egokirik, ez lan kontraturik eta ezta merkatal harremanik ere.

Aipaturikoa kontuan hartuz honakoa gomendatu nahi dugu:

Kapituluan Udalak izandako kontratu bidezko lan harreman guztiak zenbatzea.

Gastu guztiak behar bezala onartzea.

Kontratazio finko nahiz aldi baterakoan publizitateari dagokionez, indarrean dagoen legediak agindutakoa betetzea.

Aurrekontu ekitaldia hasi baino lehen Udalak ekitaldian beharko duen plantila organikoa onartzea.

Lan harreman guztiek kontratua behar dute euskarriztat. Ordaintzailea Udala denez, Udalari dagokio egin beharreko kenketak egitea eta Gizarte Segurtasunari ordaintzea.

VI.6.2. Ohiko ondasun eta zerbitzuen erosketa.

Ohiko ondasun eta zerbitzuen erosketetan Udalaren funtzionamendua eta haren jardueraren garapenerako erabilitako gastuak biltzen ditu. Onartutako betebeharrak 54,6 milioi dira, onartutako gastu guztien ehuneko 27. Behin betiko aurrekontuaren ehuneko 83 bete da.

Hona hemen:

Kontzeptua	Onarturiko betebeharrak
Ohiko bulego gastuak	2.437.684
Higiezinaren gastuak	5.105.442
Garraio eta komunikazioak	55.291
Dietak, bidaiak	59.664
Funtzionamendu gastu bereziak	43.395.997
Inbertsioen ohiko mantenimendua	3.564.277
Guztira	54.618.355

Prozedurak eta kontabilizaturiko zenbatekoak aztertu eta gero, honakoa egiaztatu dugu:

Gastuen fakturak Kontu-hartzaitzetan jaso eta osoko bilkurak edo zinegotzi delegatuak onartu eta gero kontabilizatzen dira, gastuaren alde aurretiko fiskalizazioa egin gabe.

Udalari beren ikastaroak eskainiz edo aholkularitza juridikoa emanaz beren zerbitzuak eskaintzen dizkieten profesional batzuei ez zaie PFEZaren kenketarik egiten.

Jasotako fakturen azterketan eskakizun batzuen falta egiaztatu ahal izan dugu, hala nola, IFZaren, faktura-zenbakiaren eta BEZaren xehekape-nik eza. Bestalde, festekin zer ikusia duten zenbait gastutan (txirrindularitza txapelketa edo erraldoietan) ez da fakturarik eskatu eta euskarri bakarra aurrekontua da.

Udalak ohiko ondasunen erosketengatiko gastutzat kontabilizatu ditu, beren izaera eta kontzeptuen arabera ohiko transferentzien gastutzat kontabilizatu beharreko kontzeptu batzuk (euskara ikasteko laguntzak, Sakanako Mankomunitateari ordainduriko kuotak, etab.).

1996ko ekitaldian eginiko 3,5 milioiko gastuak ez dira kontabilizatu.

Aurrekoa kontuan hartuz, honakoa gomendatu nahi dugu:

Kontu-hartzaitzak erosketa guztien kontrola egiteko prozedurak zehaztea eta gastuetarako arauteria egitea.

Udalari zerbitzuak eskaintzen dizkieten profesional guztiei PFEZaren kenketak egitea.

BEZaren arauteria betetzea, faktura-zenbakia, IFZ eta BEZ zehaztuz.

Sortzapen irizpidea behar bezala aplikatzea gastuak egiten diren ekitaldian biltzeko.

VI.6.3. Gastu finantzarioak.

Bankuen mailegu eta kredituen interesei dagozkien 1,9 milioi dira, onartutako gastu osoa-

ren ehuneko 1. Behin betiko aurrekontuaren ehuneko 47 bete da. Kapituluaren betetze maila exkaxaren arrazoia da aurreikusitako kredituak ez direla kontzertatu eta epe luzerako kreditu bat itzuli dela.

VI.6.4. Ohiko transferentziak.

1996ko ekitaldian onartutako betebeharrak 41 milioi dira, gastuen aurrekontu kitapenaren ehuneko 20. Kapituluaren betetze maila behin betiko aurrekontuaren ehuneko 89 izan da.

Ohiko transferentziak, funtsean, Musika Eskolaren finantziazioan, Sakanako Mankomunitateak eskaintzen dituen zerbitzuetan eta bestelako kultur, gizarte eta kirol ekitaldietan erabili dira.

Erabilitako irizpide kontableak eta kontabilizatutako zenbatekoak aztertuta, honakoa egiaztatzen dugu:

- Udalak ez du ohiko dirulaguntza eta kapital dirulaguntzak emateko arauteri berezirik. Ordeantza bidez araututako dirulaguntza bakarrak euskara bultzatzekoak dira.

- BEZ kengarria eta Ogasunari ordaindu beharreko kuotak 9,5 milioiko gastutzat kontabilizatu dira.

Aurrekoa kontuan hartuz, hauxe gomendatu nahi dugu:

Dirulaguntzak onuradunei emateko prozesua arautzea. Prozesu hori normaltzea.

Kapitulu honetan ohiko eragiketen finantziarako erabiltzen diren kontraprestaziorik gabeko gastu guztiak kontabilizatzea.

BEZ kengarria eta ABILEan ordaindu beharreko kuotak kontabilizatzea, aurrekontuaren gastuak ez handitzeko.

VI.6.5. Inbertsio errealak.

Onartutako betebeharrak 35,6 milioi dira, kitatutako gastuen aurrekontuaren ehuneko 17 eta betetzea behin betiko aurrekontuaren ehuneko 29 izan da. Kapituluaren betetze maila apalaren arrazoia da ez direla aurreikustako obra batzuk egin eta hasitakoak uste baino beranduago bukatu direla, Udaletxe berriaren Plazaren urbanizazio lanak, besteak beste.

1996rako inbertsio nagusiak udal pilotalekuaren erreforma, Udaletxe Plazako urbanizazioa eta lur sailen erosketa dira, guztira 21,6 milioi. Aipatu bi obraren kudeaketaz Udala bera arduratu da. Udal pilotalekuren erreforma-lanetako batzuk, zenbateko exkaxekoak, (teilatua, kalefazio eta

pintura) adjudikazio zuzenaren bidez kontratatu dira.

Lanoi dagokienez aipatzekoa da kalefazioaren adjudikazioa egiteko bi aurrekontu besterik ez direla eskatu, legediak agintzen dituen hirurak eskatu beharrean. Teilatuen erreforma eskaintzarik merkeenari eman zitzaion, nahiz eta eskaintza hori administrazio baldintzen orriak zehazturiko prezioa baino garestiagoa izan.

Aurrekontua egiterakoan aurreikusitako obra guztiak sartu eta, ondoren, beharrezkotzat jotako aurrekontu aldaketa egitea gomendatzen da.

Kontratuen Foru Legea eta kontratazio publikoari buruzko gainerako arauteria betetzeko beharra gogoratu nahi dugu.

VI.6.6. Pasibo finantzarioen aldaketa.

9,5 milioiko betetzea du, aurrekontu betetzearen ehuneko 5. Behin betiko aurrekontuaren ehuneko 100 bete da.

1996ko abenduaren 31ko pasibo finantzarioen zerrenda honakoa da:

Baldintzak				
Entitatea	Hasierako zenbatekoka	Kontzesio urtea	Urte muga	Interesa
Banco de Crédito Local	14.500.000	1985	1999	11,5%
Euskadiko Kutxa-Caja Laboral Popular	40.000.000	1995	2000	Mibor+0,75
	54.500.000			
Ekitaldiko mugimenduak				
Entitatea	96-12-31ko saldoa	Amortizazioa	Altak	96-12-31ko saldoa
Banco de Crédito Local	5.917.470	1.475.302	0	4.442.168
Euskadiko Kutxa-Caja Lab. Popular	21.906.375	35.082.093	13.016.247	(159.471)
	27.823.845	36.557.395	13.016.247	4.282.697

Kapitulu honetan gastutzat erregistratu da jasotako maileguaren amortizazioa (1,5 milioi) eta kreditu-polizaren erabilgarriaren murrizketa (8 milioi). Kredituaren itzulpenaren eta erabilgarriaren arteko aldea (13,9 milioi) pasibo finantzarioen aldaketarengatik dirusarreraren murrizketatzat erregistratu da.

Epe luzerako kreditu kontuak pasibo finantzarioen zerrendan islatu beharko liriteke erabilitako zenbatekoan. Erabilitakoa eta kredituaren kenketa edo itzulpenak pasibo finantzarioen aldaketarengatik dirusarrera eta gastutzat erregistratu beharko liriteke, hurrenez hurren.

VI.6.7. Zergengatikoko dirusarrerak.

1996ko aurrekontu-kitapenaren arabera, zergengatikoko dirusarreraren kapituluak honako betetzea izan dute:

Kontzeptua	(mila pezetatan)	
	Behin betiko aurreikuspena	Onartutakoa
Zerga zuzenak	32.383	33.710
Zeharkako zergak	22.623	13.346
Tasak eta beste dirusarrerak	89.070	197.098

1996an kitatu eta kontabilizatutako zuzeneko zergak hiri eta landa kontribuzioa eta lizentzia fiskala dira. Bildutako zenbatekoa 33,7 milioi da, onartutako eskubideen ehuneko 10 eta aurrekontuaren betetzea ehuneko 104.

Ekitaldian kitaturiko zeharkako zerga nagusiak, berriz, zirkulazioaren gaineko zerga eta Telefoniaren hegalkina, lurzorua eta lurrazpia erabiltzearen gaineko kanona dira. Onartutako eskubideak 13,3 milioi dira, aurrekontuaren ehuneko 59, onartutako eskubide guztien ehuneko 4.

Tasak eta beste dirusarreraren kapituluan, funtsean, ur hornikuntza, zabor, hondakin eta materialen bilketa, harrobien kanona, hegalkinen okupazio tasa, BEZa, NILSaren ur-garbigailuaren mantenimendurako kanona eta ohiandar probetxamendurakoa biltzen dira. Onartutako eskubidea 197 milioi dira, aurreikusitakoaren ehuneko 61.

Prozedura kontableak eta kontabilizatutako zenbatekoak aztertu eta gero, hona hemen ondorioak:

- Hondakin, material eta merkantzien tasarengatikoko eskubideak 104,4 milioi dira. Dirutza horretatik 104 milioi zordunek epaitegian errekurritutako tasei dagokie eta, beraz, berreskuratuko diren ez dago garbi.

1996an udal osoko bilkurak ez ditu zerga erroldak onartu.

- 1996ko ekitaldirako ordenantzak behin betikoz 1997ko urtarrilaren 29an onartu ziren, hasierako onespena baino 30 egun beranduago. Hortaz, Toki Administrazioaren 6/90 Foru Legea ez zen bete, aipatu legearen arabera behin betiko onespena ordenantzak indarrean sartzen diren ekitaldia hasi baino lehen egin behar baita.

- Agentzia betearazleaz Udalak kontratatuturiko enpresa bat arduratzen da eta enpresa horrek aldizkako kitapenak egin ohi ditu. 1996ko abenduaren 31n kobratzeke zeuden eskubideen zerrenda kontabilitatearekin alderatuta dauden

diferentziak ez dira materialak. Horren arrazoia da Udalak ez dituela datuak gaurkotuta. Agentzia betearazlearekiko kontratua 1992ko ekitaldian sinatu zen. Zerbitzu-kontratua denez gero, lehia-keta bidez adjudikatu beharko litzateke.

- 1996an harrobien kanonarengatikoko gehiegizko dirusarrera dago (2,3 milioi), 1997an zuzenduko omen dena.

- Harrobiaren kanonari eta ur hornikuntzari dagokien BEZ (8,8 milioi) dirusarreratzat erregistratu da.

1996ko abenduaren 31n kobratzeke zeuden itxitako ekitaldietako eskubideen saldoa honakoa zen:

Mila pezetatan	
1990 eta aurrekoak	971
1991	152
1992	383
1993	678
1994	967
1995	1.775
Guztira	4.926

Kobratzen zailak diren saldoak 4 milioiok direla uste dugu.

Aurreko lerroaldeotan errandakoaren arabera, honakoa gogoratu eta gomendatu nahi dugu:

Ordenantza fiskalak urtero aztertzea, aldaketak indarrean sartuko diren ekitaldia hasi baino lehen argitaratuz.

BEZ ABIL-n kontabilizatzea aurrekontuaren dirusarrerak ez handitzeko.

VI.6.8. Ohiko transferentziak.

Kapituluak Udalak jasotako kontraprestaziorik gabeko zergaz besteko dirusarrerak biltzen ditu. Dirusarrera hauek ohiko eragiketengatikoko gastuak finantzatzeko erabiltzen dira. Kapituluaren dirusarrerak 45,1 milioi dira, onartutako eskubideen ehuneko 14.

Jasotako transferentzia gehienak Nafarroako Gobernutik datoz.

VI.6.9. Ondasun dirusarrerak.

Udalak Banku eta Nafarroako Gobernuarekin dituen kontuen interesei dagozkie eta baita edifizioen alokairuei ere.

VI.6.10. Inbertsio errealeen besterengantzea.

Kapituluan onartutako dirusarreraren zenbatekoa 26,2 milioi dira, gastu guztien ehuneko 8. Herriko enpresa bati eginiko lur sail batzuen zesio eta probetxamendutik eta Administrazioak N-1 errepidearen saihezbidea egiteko hartutako lur sailetatik dator dirutza hori. Kapitulu honetan ez zen dirusarrerarik aurreikusi eta kobratu beharreko zenbatekoa ezagutu ondoren ez da aldaketarik egin.

VI.6.11. Kapital transferentziak.

Kapituluan bilduriko transferentziak kapital eragiketarako dirulaguntzak dira. 1996an onarturikol eskubideak 18,3 milioi dira, onartutako osoaren ehuneko 6.

1996an jaso eta 1990-1995 urteetan eginiko obrei dagokien 15,7 milioiko dirulaguntza ekitaldiko dirusarreratzat erregistratu da. 1996ko aurrekontu egoeran finanziaioa eragindako gastuen aldaketa positibotzat agertzen dira.

Nafarroako Gobernuak langabetuak kontratazkeko emaniko 1,6 milioiko dirulaguntza ez da dirusarreratzat erregistratu.

VI.6.12. Diruzaintza.

1996ko abenduaren 31ko diruzaintzaren egoera honakoa da:

	Pezetak
Bankuak	11.896.316
Banaketa kontua	3.639.934
Diruzaintza 96-12-31	15.536.250

Ondoren Aurrekontuko Balio Independiente eta Laguntzaileen 1996ko abenduaren 31ko egoera aurkezten dugu:

	Pezetak
ABIL diruz	3.947.736
ABIL balioak	3.387.883
Guztira	7.335.619

Diruzaintzari buruzko azterketa egin ondoren, honakoa egiaztatu dugu:

- Kontabilitateko zenbatekoen eta bankuetako saldoen arteko diferentzi ez materialak aurkitu ditugu.

- Badira Udalaren izenean dauden kontu korrente batzuk, saldo oso tikiak dituztenak, eta fondoan kontaktetan kontuan hartzen ez direnak.

- Kontuetako fondoak erabiltzeko ahalmena Udalean sinadura duten guztiek dute.

Aurreko lerroaldeotan errandakoaren arabera, honakoa gomendatu nahi dugu:

Saldo kontable eta bankuetako laburpenen arteko kontaktak egitea, kontaketa horiek hilabetezko kontaktetara erantsiz.

Saldo eta mugimendu exkaxa dituzten bankuetako kontu korrentean bertan behera uztea.

Bankuetako kontuen fondoak erabiltzeko, gutxienez, bi personaren sinadura amankomunatu beharrezkoa izatea.

VI.6.13. Hirigintza eta ondasuna.

Olaztiko Udalak arau subsidiarioak baditu, baina ez dagozkien azterketa ekonomiko-finantzarioa. Azken aldaketa 1986koa da.

Udaleko ordezkariak diotenez, hirigintza plana Lurzoruaren Erregimen eta Hiri Antolamenduari buruzko 199ko ekainaren 6ko legearen testu bilduari eta Lurralde Antolaketari buruzko 10/94 Foru Legeari egokitzen hasia da.


Udalak ez du lurzoruaren udal ondasuna egin.

Lurzoruaren udal ondarea egiteko beharra gogoratu nahi dugu. Hirigintza eta Lurralde Antolamenduari buruzko Foru Legearen arabera, ondarea honako ondasun mota hauek osatzen dute: Hirigintza planak lurzoru urbano edo urbanizagarri programatuzat hartutakoak eta, halaber, lagapen (lursail ez edo diruz), edozein motatako hirigintza-desjabetze eta eroslehentasun eta atzera eskuratzeko eskubidearen bidez eskuratutakoak.

Iruñean 1997ko urriaren 9an

Lehendakaria: Francisco Javier Tuñón San Martín

ERANSKINA: OLAZTIKO UDALAREN ORGANIGRAMA 1996ko ABENDUAREN 31n.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA
ORRIA**

Izen-deiturak

Helbidea

Telefona *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko sartu-ateratzeko kontura igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.900 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 135 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 170 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	--